



HAL
open science

Antzerkia haur eskolan : Piarres Larzabalen Hiru ziren obra muntatu hirugarren zikloko ikasleekin

Marion Aramendi

► **To cite this version:**

Marion Aramendi. Antzerkia haur eskolan : Piarres Larzabalen Hiru ziren obra muntatu hirugarren zikloko ikasleekin. domain_shs. 2021. dumas-03549564

HAL Id: dumas-03549564

<https://dumas.ccsd.cnrs.fr/dumas-03549564>

Submitted on 31 Jan 2022

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Master Métier de l'Enseignement, de l'Éducation et de la Formation

Mention Premier degré

Parcours Basque



Antzerkia haur eskolan : Piarres Larzabalen *Hiru ziren* obra muntatu hirugarren zikloko ikasleekin

Le théâtre basque en cycle 3 bilingue



Memorioaren egilea : ARAMENDI Marion

Zuzendariak :

OLÇOMENDY Argia

LASCANO Beñat

2020-2021 ikasturtea

AURKIBIDEA / SOMMAIRE

Sarrera	4
1. Euskal antzerkia XX. mendean	5
1.1. Antzerkiaren definizioa	5
1.2. Euskal antzerkia - XX. mendean	6
1.3. Piarres Larzabal - antzerkigilea	8
1.3.1. Biografia labur bat	8
1.3.2. Euskal gizartearen harrera	10
1.4. Hiru ziren antzerkia	11
1.4.1. Azalpen labur bat	12
1.4.2. Euskaldunen emigrazioa	13
1.4.3. Bigarren zatiaren azterketa	14
2. Antzerkia, genero literario didaktikoa	18
2.1. Le théâtre dans les instructions officielles / Antzerkia programa ofizialetan	18
2.1.1. Cycle 1 / Lehen zikloan	18
2.1.2. Cycle 2 / Bigarren zikloan	19
2.1.3. Cycle 3 / Hirugarren zikloan	20
2.2. Le théâtre dans le socle commun de connaissances, de compétences et de culture 21	
2.3. Antzerkia : hizkuntza, kultura eta norberaren adierazgarri	23
2.3.1. Klasearen aldetik	23
2.3.2. Ikasleen aldetik	23
2.3.3. Hizkuntzaren aldetik	25
3. Sekuentzia	26
3.1. Sekuentziaren nondik norakoak	26
3.1.1. Sekuentziaren helburuak	26
3.1.2. Ikastaldiarendako errezibitu nauen eskolaren presentaketa	27
3.1.3. Kontuan hartu beharreko parametroak	28
3.1.3.1. Ikasgelaren antolaketa	28
3.1.3.2. Ikasleak	29

3.1.3.3. Materiala	30
3.1.3.4. Denbora eta espazioa	30
3.1.4. Ikasleek eskura dituzten tresnei buruzko hausnarketa	31
3.1.4.1. Ahotza lantzeko	31
3.1.4.2. Testua lantzeko	31
3.2. Sekuentziaren presentaketa	33
3.2.1. Sekuentzia saioz saio	33
3.2.2. Egindako aldaketak	35
3.2.3. Ebaluaketa tresnak	35
3.3. Analisia	36
3.3.1. Ebaluaketen emaitzak	36
3.3.2. Analisia orokorra	39
Bukaera	42
Bibliografia / Bibliographie	44
1. Eranskina : Sekuentziaren jarraipena	46
2. Eranskina : Ikasleen dokumentua	55
3. Eranskina : Pertsonaien zerrenda	63
4. Eranskina : Ulermen fitxak	64
5. Eranskina : Toka-noka ikasgaia	68
6. Eranskina : Galdeketa fitxa	69
7. Eranskina : Galdeketa fitxaren emaitzak	71
8. Eranskina : Behaketa taula	72
9. Eranskina : Ikasleen behaketa taula	73
10. Eranskina : Behaketa taulen emaitzak	74
11. Eranskina : Iritzi fitxa	75

Sarrera

Irakasle gisa lan egiteko xedea dudanez, masterraren bidez, Iparraldeko eskola publiko batean, zehatzago Aiherrako eskola publikoan, ikastaroa egiteko posibilitatea izan dut. Horiei esker, nire xedea baieztatu dut eta, aldi berean, ohartu naiz euskararen erabilera ez dela pentsatzen nuen bezalakoa. Bestela esanda, bigarren zein hirugarren zikloko ikasleek, gaitasun aski izan arren, ikasgelatik kanpo ez dira euskaraz mintzatzen. Nire ustez, edo motibazio edo konfiantza falta bat da, edo ez diote euskara ikasgelatik kanpo erabiltzeari interesik ikusten. Beraz, galdetu diot nire buruari ea tresnarik dagoen hori aldatzeko.

Horri buruz hausnartzean, ikasle gisa izan dudan esperientziaz oroitu naiz. Lehen mailako eskolan nintzelarik, urtero, euskal antzerki bat muntatzen genuen, urte bukaeran emanaldiak egiteko gurasoen zein beste ikasleen aitzinean. Proiektu hori lagungarria izan zen zenbait aldetan. Izan ere, niregan konfiantza hobetzen lagundu nau, nire lotsa bazterrean utzi behar bainuen publiko baten aitzinean nire rola jokatzeko. Horretaz gain, antzerkian rol bat dugularik, beste pertsonaia bat antzeztu behar dugu. Horrek rola pertsonalizatzen erraztu dezake, gauza gehiago egiteko edo izaera guztiz desberdina izateko libreago sentitzen baikara pertsonaia bat jokatzen dugularik, gu geu garelarik baino.

Beraz, ikastaroan ikusi dudan egoera eta nire esperientzia parean emanez, galdetu diot nire buruari biak lotu ahal diren. Hau da, antzerkiaren inguruko proiektuak euskara ikasten duten ikasleak euskara gehiago erabiltzera laguntzen ahal ote ditu? Jakin behar da, klase bat dugularik, Hezkunde Nazionalak argitaratu dituen programak hartzen ditugula oinarri gisa. Programa horietan, idatzia da antzerkia genero literario gisa landu behar dela. Beraz, ikerketa lan horren bidez, ikusi nahi nuke antzerki bat, eta bereziki Piarres Larzabalen *Hiru ziren* antzerkia muntatzeak zein heinetaraino laguntzen ahal dituen ikasleak.

Horretarako, XX. mendeko euskal antzerkia zer zen eta Piarres Larzabal nor zen finkatu eta gero, begiratu dugu zein den antzerkiaren lekua Hazkunde Nazionalak argitaratutako programetan, baita bere ekarpenak. Testuinguru hori aipatu ondoren, Aiherrako CM1-CM2 (9-10 urte) ikasgelan plantan ezarri dudan sekuentziaren nondik norakoak, jarraipena eta emaitzak aztertuko ditugu.

1. Euskal antzerkia XX. mendean

1.1. Antzerkiaren definizioa

Lehenik eta behin, antzerkia zer den aztertuko dugu. Etimologiaren aldetik, « antzerkia » hitza latinezko *theatrum* hitzetik dator, eta, azken hori, grekozko *theatron* hitzetik etortzen da. *Theaomai* aditzaren eratorria da eta « begiratu », « kontenplatu » adierazten du. Antzerkiak irudikatzen du leku bat edo eraikin bat nondik zerbait begiratzen dugun, hori da gehienetan hiztegieta agertzen den lehen definizioa. Alabaina, beste definizioak ere onartzen ditu hitz horrek, besteak beste, publiko batean aitzinean emanaldi baten egiteko artea, edo literaturazko generoa. Horra hemen, Le Robert hiztegian agertzen diren definizioak :

« I. Dans l'Antiquité. *Construction en plein air; généralement adossée à une colline creusée en hémicycle, réservée aux spectacles.*

Moderne *Construction ou salle destinée aux spectacles se rattachant à l'art dramatique.* » (Le Robert en ligne)

« II. 1. *Art visant à représenter devant un public une suite d'évènements où des êtres humains agissent et parlent.* » (Le Robert en ligne)

« II. 2. *Genre littéraire ; ensemble d'œuvres dramatiques.* » (Le robert en ligne)

Bigarren definizioak, artearen nozioa sarrarazten du. Azken horrek, eskolan irakatsiak diren ikasgaietan parte hartzen du. Definizioak aipatzen du arte horretan helburu bat dela ere : publiko baten aitzinean emanaldi baten egitea. Horrek iradokitzen du antzerkia partekatua izan behar dela, alde batetik, emanaldia egiten duten pertsonen artean, esaterako antzerkilariak, eta beste aldetik, antzerkilarien eta publikoaren artean. Beraz, antzezlan horretan « enuntziazio bikoitza » (double énonciation) agertzen da : antzerkilari bat berarekin aritzen diren antzerkilariari mintzatzen zaielarik, aldi berean, zeharka, ikusleengana zuzentzen da.

« Enuntziazio bikoitza » nozioa hori interesgarria da ikasleekin landua izaten ahal baita. Izan ere, antzerkia ikusten badugu ikasgelan, ikasleei erakutsi behar diegu hitz egin behar dutela besteekin, baina, kontuan hartu behar dutela publiko bati ere zuzendu behar direla. Horretarako, garrantzitsua izanen da, prestatze prozesuan, ikasleak bi posizioetan izatea,

hobeki ulertzeko. Beraz, eginarazi beharko dizkiegu aktibitateak non batzuk antzerkilarien rola duten eta besteek behatzaileena. Behatzaileen lekua hartuz, emanaldiari buruz ikuspegi berri bat izan dezakete, eta, horren arabera, hobekuntzak egiten ahalko dituzte.

Hirugarren definizioak dio antzerkia literaturazko genero bat dela. Izan ere, antzerki batean, antzerkilaria autore batek idatzitako testu baten eta ikuslearen arteko bitartekaria da, testu hori erranez eta jokatzuz - salbu, bat-bateko antzerkiaren kasuan, non antzerkilariak ez duen testurik segitzen. Idatzi hori literatura generoan txertatzen da, eta, gainera, ikasleek genero hori ikasi behar dute beren ikasturtean.

Antzerki testu horrekin jarraitzeko, erran behar da beste literatura generoetatik ezberdintzen dela bere egituragatik. Hau da, antzerki batean ez da kapitulurik, bakarrik gertaldiak ; eta, gertaldi horiek eszenatan zatituak dira. Bestalde, testuan bertan bi osagai dira :

- Errana den testua : antzerkilariek ahoskatzen dute testu guztia, besteak beste, elkarrizketak, bakarrizketa, etab. ;
- Didaskaliak : antzerkilarien jokoari zein eszenaratzeari buruzko adierazpen eszenikoak (antzerkilarien joan-etorriak, adierazpenak, hartu behar duten tonua, nori hitz egin behar duten, etab.).

1.2. Euskal antzerkia - XX. mendean

Ezagutzen dugun antzerkiaren jatorria Antzinarotik dator. Gero, mendez mende, garatu eta emendatu da mundu guztira. Nerea Urrutia San Juan 2017an idatzi duen « *Antzerkia : Piarres Larzabalaren « Angles ginelarik » (1973) obra* » memorioan, antzerkiaren historia aipatzen du denboran eta munduan zehar. Aldiz, lan horretarako, euskal antzerkia aipatuko dugu eta, zehazkiago, XX. mendeko euskal antzerkia.

Euskal Herriko iparraldeko historian, antzerkia XX. mendetik hasi zen garatzen, eta bi garaitan zatitzen ahal da (EKE, *Euskal antzerkigintza*). Lehen garaian, 1920tik 1945era, elizak parte hartzen zuen antzerkiaren berpiztean, batez ere, Jean Barbier (1875-1931), Léon

Léon (1896-1962) edo beste apaiz batzuei esker. Piarres Larzabalek 1965ean egindako mintzaldi batean adierazi zuen : « *Hemengo euskal antzerkia apezek sortu, hezi eta findu zuten parrokiako geletan.* » (EKE, *Euskal antzerkigintza*).

Garai horretan, lehen euskal antzerkia Senperen izan zen 1921ean ; antzerki hori, Jean Barbierrek, herriko apaizak, idatzi zuen. Gero, antzerkiak hasi dira sortzen beste herrietan. Hala ere, elizari lotuak zirenez, antzerki gehienek morala bat zuten eta gai beren inguruan ziren (sorginkeria, bertutea, etab.). Aldiz, nahiz eta estereotipoak agerian eman, adibidez nagusi onak eta enplegatu gezurtiak, irriaren bidez egina zenez jendearen jostarazteko, memento on baten pasatzeko etortzen zen. Horrenbestez, herrien artean, antzerki lehiaketak antolatuak ziren ; horren egiteko, antzerki taldeak leku batean elkartzen ziren. Baina, jakin behar da, gehienetan, antzerki talde horiek neskez edo mutilez bakarrik osatuak zirela.

1945. urtetik goiti, bi idazlek maila berri batera ereman zuten antzerkia : Piarres Larzabal eta Telesforo Monzon. Horrek markatzen du bigarren zatiaren abiapuntua. Izan ere, Telesforo Monzon laikoa zen, beraz antzerkia elizatik urruntzen hasi zen. Eta horren ondorioz, Monzon-en gibeletik, beste laiko batzuk ere hasi ziren antzerkiak idazten ; besteak beste, Mayie Eliçagaray eta Marie-Jean Minaberry (Echeverria, 2016).

Horren ondotik, 1965etik goiti, elizak bere nagusitasuna galtzen hari zen antzerkigintzan. Gainera, 1966an, antzerkilari batzuk elkartu ziren Heletan, haietan Piarres Larzabal eta Telesforo Monzon ; eta, hortik, euskal antzerkiaren Federazio bat sortu zuten : Antzerkilarien Biltzarra. Federazio horrek xede zenbait zituen antzerkigintzaren indartzeko. Hau da, urtero antzerki sorkuntza bat aurkeztu behar zuten, euskal antzerki bizia koordinatu, harremanak sortu hego Euskal herriko antzerki taldeekin eta euskal antzerkigintzaren artxiboak sortu eta garatu. Hortik, antzerkigintza ospetsua izateko nahia handitzen zen, beraz, antzerki talde ezberdinetan, aktore joko hoberena zuten antzerkilariak hautatu zituzten talde berri baten sortzeko. Talde horrek, 1968an, Piarres Larzabalek idatziko *Matalas* antzerkia jokatu zuen Roger Idiart eta Telesforo Monzon zuzendari artistikoekin.

Daniel Landart izendatua izana zen federazio horren lehendakari. Baina, 1969an antzerkiak idazten hasi zen eta bi irizpide berri ekarri zituen antzerkiaren muntatzea errazteko : bere obrek pertsonaia gutxi zituzten eta obra baten eszena guztiak leku bakar batean gertatzen ziren. Horri esker, biren egiteko aukera eskaini zuen.

Horrekin batera, beste antzerki mugimendu bat hasi zen nagusitzen : antzerki militantea. Antzerki militante horrek hartu zuen engaiaimendu gisa euskal nortasuna eta gizarte arazoak agerrian ezartzea. Beraz, Xirrixti Mirrixti (Baionan), Bordaxuri (Hazparnen) edo Iturri taldea (Irrisarin) bezalako antzerki taldeak hasi ziren sortzen, eta, horietako batzuek, gaur egun jarraitzen dute.

1990. hamarkadan, euskal antzerkia eskoletara sartu zen, eta, eskola batzuek antzerkia aitzinean ematen zuten horren inguruan festibalak edo ekintzak antolatuz. Adibidez, Urruñako eskola katolikoak, urtero « Antzerkiaren astea » antolatzen zuen. Ikasturte bukaeran, Iparraldeko eskolako eta kolegioko zenbait klase aste oso batez Urruñako eskolan elkartzen ziren, urtean zehar prestatu zituzten antzerkien aurkezteko beste klaseen aitzinean. Klase guzti horiek elebidun sarean zirenez, ez ziren euskal antzerkiak bakarrik. Bestela esanda, klase batzuek frantses antzerki bat aurkezten zuten eta beste batzuek euskal antzerki bat.

1.3. Piarres Larzabal - antzerkigilea

Sekuentziaren egiteko, hautatu dut Piarres Larzabalen obra baten muntatzea, Euskal Herriko iparraldeko antzerkigile famatu bat baita eta gizartearen arazoak plazaratzen baititu, miraila baten gisa.

1.3.1. Biografia labur bat

Piarres Larzabal Azkainen sortu zen 1915eko maiatzaren 5an, eta, 1988ko urtarrilaren 12an, Ziburun hil zen. Aita Urruñara zuen eta Ama Lesakarra. Familia horretan 6 anai-arreba ziren ; Piarresek hiru anaia zituen eta bi arreba.

Haur zenetik bazekien apaiza izan nahi zuela. 9 urterekin, bere garaiko irakasleak galdetu ziolarik zer lanbide egin nahiko zuen, « *apezgoa* » erantzuna eman zion (Idiart, 1985). Xede horrengatik, besteengandik trufak pairatu zituen. Hamahiru urterekin, Uztaritzeko seminario txikira joan zen eta, bertan, hasi zen antzerkia egiten, Piarres Lafitteren zuzendaritza pean. Ondotik, Baionako seminarioan segitu zituen ikasketak. 1933an, hemezortzi urterekin, Parisera joan zen soldaduskaren egitera bi urtez. Han zen bitartean, erizain titulua ukan zuen eta antzerki talde batean parte hartu zuen. Gainera, bertan idatzi zuen bere lehen antzerkia, *Irri eta nigar* deitzen zena.

1939an apaiz egin zen eta Hazparneko bikario izendatu zuten. Alabaina, urte baten buruan, bigarren mundu gerlaren egitera joan zen, baina, preso egina izan zen. Gurutze gorri batasuneko kide batzuek libratu zuten.

1942an, Hazparnera itzuli zen eta nazien aurkako erresistentzian parte hartu zuen, « komandante » kargua izan zuen. Gerla ondoan, antzerkigintzan hasi zen, baita langile gazte girstinoen formakuntzan ere, bilkurak antolatuz.

1951n, Jaun Apezpikuak, Larzabal Zokoako erretore izendatu zuen, baina eliza ez zen oraindik eraikia. Eliza berriaren lehen harria 1952an emana izan zen, eta lanak 1959an bukatu ziren.

1963an, euskaltzain izendatu zuten, Jean Elissalderen ordean. Hamarkada berean, gero eta gehiago, abertzaletasunaren alde agertu zen. Beste kide batzuekin, besteak beste Michel Labéguerie, Jean Louis Davant eta Ximun Haranekin « Enbata » mugimendua sortu zuten. Aldi berean, Larzabalek mugimenduaren izen bereko aldizkarian artikuluak idazten zituen. Geroago, Telesforo Monzon eta Angel Arregiekin « Anai-Artea » elkarteak sortu zuten, euskaldun iheslariei laguntzaren eskaintzeko.

1979an, eri izanagatik, Zokoako erretoregoa utzi zuen eta zortzi urte geroago hil zen.

1.3.2. Euskal gizartearen harrera

Piarres Larzabal nor izan zen ikusi ondoan, antzerkigintzaren inguruan egin zituen lanak aztertuko ditugu.

Hastapenean, Piarres Larzabalek idatzitako antzerkien helburua dibertigarriak izatea zen, gizartea irri eginarazi nahi zuen. Xede horrekin, zenbait komedia idatzi zituen, besteak beste *Kontrabandistak*, *Eiherazainaren astoa*, *Okilamendi jaun mera* (Testu osoak *klasikoen gordailua* webgunean aurkitzen ahal dira). Alabaina, bere asmoa laster aldatu zen. Izan ere, beste maila batera eraman nahi zuen antzerkia, « heldutasun » bat lortuz. Bestela esanda, jendea irri eginarazi ez ezik, zenbait gogoeta eginarazi nahi zizkien. Horretarako, gai guztiak aipatu nahi zituen bere antzerkietan.

Hortaz, zenbait antzerki idatzi zituen. Hala nola, *Etxahun* (1951) edo *Bordaxuri* (1952) antzerkietan kontzientzia arazoak aipatzen zituen ; gizarte gaiak agerrarazi zituen besteak beste *Hiru ziren* (1957) eta *Lana eri* (1965) antzerkien bidez ; azkenik, *Matalas* (1968) eta *Ibañeta* (1968) gisako antzerkiekin euskal nortasunaren kontzientzia hartzea eragiten zuen.

Isabelle Echeverriak sailkapen zehatzago bat proposatzen du, 2008 idatzi duen « *Piarres Larzabalen antzerkigintza : 1950-1982. Euskarazko antzerki identitarioaren paradigmak* » tesian. Bere sailkapenaren egiteko, hiru ardatz nagusi erabiltzen ditu Piarres Larzabalen obrak bereizteko : dramak (*Senperen gertatua* (1964), *Ingeles ginelarik* (1973), *Hiru ziren*) ; tragediak (*Sarako Lorea* (1964), *Etxahun*, *Bordaxuri*, *Matalas*) ; komediak (*Kontrabandistak*, *Sehi berria*, *Irri eta nigar*).

Piarres Larzabalek artikuluak idazten zituen aldizkari batzuetan, adibidez *Gure Herrian* edo *Herria* aldizkarian. Bertan idatzi zituen artikuluak ez ziren beti ongi onartuak ; are gutxiago, artikulu batengatik, auzitegira eramana izan zen. Aldiz, antzerki mailan, bere ospea hasi zen garatzen *Etxahun* antzerkiarekin (Landart, 2015). Gero, herri zenbaitetako antzerki taldeek Larzabalek idazten zituen antzerkiak jokatzen zituzten. Gainera, Zokoara etorri zelarik, jadanik ezagutua zen ez bakarrik apaiz gisa, baina antzerkigile gisa (EKE, *Piarres Larzabal*).

Har dezagun adibidez *Matalas* antzerkia. 1967an idatzi zuen, eta, urte berean, Baionan, taularatu zuten. Hainbeste jende etorri zen lehen emanaldira, non Larzabalen ospea irudikatzen zuen.

« *Lehen emanaldia sala mukurru bete zen eta hiru ehun presuna kanpoan gelditu ziren, ezin sartuz.* » (Idiart, 1985ko iraila-abendua)

Gainera, teatroko zuzendaria harrিতua egon zen, Idiartek adierazten duen bezala 1985ean *Egan* aldizkarian idatzi duen artikuluan.

« *Biharamunean, teatroko buruzagiak bere salun ederrean errezebitu gintuen : « Jar zaizte, Jaunak ! Aitor dut ez nuela uste barda holako jendeketa bilduko zela.* » (Idiart, 1985ko iraila-abendua)

Geroztik, idazle askok idatzi dute Piarres Larzabali buruz. Jadanik aipatu dugu Isabelle Echeverriak idatzitako tesia. Piarres Charritonon (1921-2017) lanak azpimarratzekoak dira ere. Piarres Larzabalek Piarres Charriton, Daniel Landart eta Roger Idiart hautatu zituen bere lanaen biltzeko. Charriton horretaz arduratu zen, eta Elkar argitaletxearekin, lanak bildu zituen zazpi liburukiz osatua den *Piarres Larzabalen idazlanak* bilduman (Landart, 2015). Horra Xarritonek Larzabali buruz zer erran zuen :

« *Ez dut uste baden gure literaturan beste idazle ainitz bere herritarren sendimendu, kezka eta gogoetak, hots herriaren bizi guzia hain barnatik sumatu duenik eta bere berak dituen solasen bitartez, taulen gainean, bizi bizia, argiratu.*» (EKE, 2008)

Gaur egun, Piarres Larzabal oraindik ospetsua da, batez ere gehien antzeztua den idazlea baita eta bere testuak ikasgeletan erabiliak baitira.

1.4. *Hiru ziren antzerkia*

Aipatu bezala, Piarres Larzabalek antzerki asko idatzi zituen bere bizitzan. Baina, lan honetan, hautatu dut *Hiru ziren* antzerkiaren lantzea. Horretarako, Klasikoen Gordailua

webgunean eta Charritonek argitaratutako *Piarres Larzabalen Idazlanak (II)* liburukian (1991) agertzen diren bertsoak hartu dut.

1.4.1. Azalpen labur bat

Piarres Larzabalek, *Hiru ziren* antzerkia idatzi zuen pertsona batzuk etorri baitzitzaizkion galdetzerat, garai hartan zegoen emigrazio fenomenoari buruz ez ote zuen antzerkirik idatziko. Informazioak bildu ondoren, antzerkia pentsatu eta sortu zuen.

Antzerki horretan, Ameriketarat joaten diren Donibane Garaziko hiru gazte segitzen ditugu : Pantxo, Beñat eta Anton. Bidaia horren egitea hautatu dute, han diru gehiago irabazten dela entzun baitute. Beraz, hastapenean, sei urterako joaten dira, artzain gisa edo garaje batean lan egitera. Alabaina, Ameriketara direlarik, ez dute esperientzia bera bizitzen, eta, bukaeran, ez dute ibilbide bera. Antonek bere osabaren garajea lan egiten du eta han egotea erabakitzen du. Beñat, sei urte horietan ongi lan egin ondoren eta diru zenbait ekonomizatu eta gero, etxerat itzultzen da. Aldiz, Pantxok, zenbait arazoren ondorioz, ez du dirurik atxiki ; beraz, ezin da etxerat itzuli.

Antzerkia, bost gertaldietan banatzen da eta, bakoitza leku bakar batean gertatzen da. Hau da, lehen eta bostgarren gertaldiko jostalekua Donibane Garaziko ostatu bat da. Beste hiru gertaldiak Ameriketara pasatzen dira, eta, zehazkiago, Kalifornian : bigarrena eta laugarrena ostatu batean, eta hirugarrena mendian.

Gertaldietan diren eszena ezberdinetan zehar, hiru pertsonaia nagusien inguruan agertzen diren beste pertsonaiak deskubritzen ditugu. Orotarat, hogeita hiru pertsonaia dira antzerkian. Alabaina, Pantxo, Beñat eta Anton izan ezik, beste pertsonaia guztiak leku batean bakarrik aurkitzen ditugu ; hiru horiek bakarrik segitzen baititugu Donibane Garazitik Kaliforniara.

1.4.2. Euskaldunen emigrazioa

Erran bezala, *Hiru ziren* testuan, Piarres Larzabalek emigrazioaren fenomenoaren agerrarazten du, eta, horrekin batera, ekartzen dituen problematikak. Lehenik emigrazioaren kontestua aipatuko dugu.

XIX. mendean, emigrazio masiboa hasi zen munduan, baita Euskal Herrian ere. Kanalduden, 2015 emana izan zen euskal emigrazioari buruzko eztabaidan, Argitxu Camus ikertzaileak datu batzuk eman zituen. Hala nola, azaldu zuen emigrazio fenomenoaren inportantea izan zela Euskal Herriko historian, 1900 urtetan, 200 000 bat euskaldunek emigratu baitzuten. Beste herrialde batzuekin konparatuz ez da zenbaki handi bat, baina kontuan hartu behar da garai hartako biztanle kopurua. Hau da, urte horietan, milioi bat biztanle ziren Euskal Herrian. Garrantzi horen azpimarratzeko, Pierre Lhandek idatzitako « *L'émigration basque* » liburuaren aipamen bat eman zuen.

« Egiatzko euskaldun bat izateko, hiru baldintza behar ziren : izen euskaldun bat ukan, euskaraz mintzatu eta osaba bat ukan Ameriketara. » (Pierre Lhande)

Azken baldintza horrek erakusten du fenomeno garrantzitsu bat izan zela eta familia anitz hunkitu zituela.

Emigrazio fenomeno horretan bi helmuga izan ziren nagusi. Lehenik, euskaldun gehienek Hego Amerikarat joatea erabakitzen zuten, eta, zehazkiago, Argentinara edo Uruguaiara. Piska bat beranduago, Euskaldunak Estatu Batuetara buruz joaten ziren. Gaur egun, fenomeno horrek garrantzia gutxiago izan arren, oraindik jarraitzen du. Euskaldun gazte batzuek Euskal Herritik joatea erabakitzen dute, edo mundua deskubritu nahi baitute, edo ikasketen edo lanaren arloan esperientzia berri baten izateko.

Piarres Larzabalek, *Hiru ziren* antzerki horren bidez salatzen duen lehen problematika da emigrazioarengatik, Euskal Herria gaztez husten dela (Echeverria, 2016). Agentzia batzuek Ameriketara joatearen abantailak goraiatzeko zizkieten euskaldun gazteei. Hots, diru ainitz irabazten ahalko zutelara, izugarrizko bizi bat izaten ahalko zutelara, eta, horrez gain, bidaiaren

antolatzea eskaintzen zieten. Horiek guztiak erakartzen zituzten gazteak. Alabaina, aldi berean, familiek beren beharra zuten etxeetan ; Battittak, Pantxoren aitak, Mentaberriri adierazten dion bezala lehen gertaldiko laugarren eszenean.

Bestalde, hiru pertsonaia nagusien ibilbideei esker, Larzabalek agerrarazten du emigrazioa ez zela beti iragartzen zuten bezain erraza. Bestela esanda, hiru pertsonaiak erabiliz, erakutsi zuen Ameriketara joatea ez zela erraza, eta, bertan zirelarik, bizia zaila zela. Pantxoren adibidea hartzen badugu, ikusten dugu gaizki kudeatzen duela bere bizia Ameriketara, eta, horren ondorioz, ezin dela itzuli Euskal Herrirat. Hala ere, Beñaten kasua aztertuz ikusten dugu etxera itzultzen bada ere, garai zailak izan dituela Kalifornian.

Isabelle Echeverriak esplikatzeko duen bezala, antzerki horretan Piarres Larzabalek ez du guztiz kondenatzen emigrazioa, baina tranpak eta ahuleziak agerrarazten ditu. Gehitzen du Larzabalek gazteen trafikoa salatzen duela.

1.4.3. Bigarren zatiaren azterketa

Sekuentziaren osatzeko hautatu dudana bigarren zatia, Piarres Larzabalek idatzitako *Hiru ziren* antzerkiaren lehen gertaldian agertzen da. Piarres Larzabal XX. mendeko idazle eta, bereziki, antzerkigile ospetsu bat zen. Bere antzerkiaren bidez, plazaratu zituen gizartearen istorioak eta arazoak ; eta, garai hartan, dinamika berri bat ekarri dio antzerkiari. *Hiru ziren* antzerkian, emigrazioari buruz diren ikusmoldeak erakusten ditu eta, aldi berean, bere iritzia ematen du.

Aztertuko dugun zatia, lehen gertaldiaren V. eszenan agertzen da eta hiru pertsonaia kalapitan ari dira : Pantxo, Karolina eta Margarita. Zertan antzerki zati horrek komedia baten aztarnak eramaten ditu ?

Zatiaren edukia eta forma aztertu ondoren, begiratuko dugu nola Piarres Larzabal pertsonaiekin trufatzen den komediari esker.

Pasarte horretan eta pertsonaia nagusi baten istorioa zehazteko, antzerkigilea askotan entzundako mami baten gainean oinarritu da. Esaterako, bi familia nahi gabe lotuak dira bi

gazteak elkarrekin egon baitira eta horren ondorioz haur bat bidean baita. Alabaina, istorio gehienetan bezala arazo bada : Pantxo Ameriketarat joaten da, eta berak eta bere familiak ez dute haurdunaldi horri lotuak izan nahi, bi familiak ez baitira klase sozial beretik heldu. Beraz, aurkitzen ditugu hemen, komedia baten lehen aztarnak.

Horrez gain, kalapitari kasu ematen badiogu, ikusten dugu Piarres Larzabalek zenbait gai sartzen dituela. Lehenik, Pantxoren izaera aipatzekoa da. Hain zuzen, eman du neska gazte bat haurdun, baina ez da batere horretaz arduratzen. Are guttiago, Ameriketarat joaten da haurdunaldi hori kontuan hartu gabe. Halako istorioak ez dira oraingoak, baina, gaur egun, oraindik gertatzen dira ; gizon batzuek, batez ere gaztetan gertatzen zaielarik, aukeratzen dute beren gain ez hartzea. Bigarrenik, klase sozialen banaketa azpimarratzen du. Argiki ulertzen dugu, Karolinak, Pantxoren amak, ez diola kasurik ematen Margaritaren haserreari, eta, bere semea bezala, ez dela istorioaz arduratzen, « *gazte ixtorioetan ni ez naiz barna sartu nahi !* ». Azken esaldi horren ondorioz, Margaritak ohar interesgarri bat egiten du, « *Zure semeak hola ezarri balu jaun meraren alaba, sartu nahiko zinuken ba !* ». Horrek agerian ematen du Karolinak ez dituela Margarita eta bere familia ber mailakoak bezala kontsideratzen ; eta, bere semea beste klase sozial bateko neska batekin egon balitz, bestela esanda, goi mailako batekin, orduan, gehiago interesatuko zela.

Ikusi dugu antzerki horretan komediaren aztarnak direla edukian bertan, istorioaren mamian komedia klasikoaren gaiez oinarritu baita. Baina, horiei lotuta beste aztarnak aurkitzen dira testuaren forman.

Testu mota guztietan, esaldien luzetasunak, erabiliak diren hitzak, etab., dena hautatua da sentimendu bat edo emozio bat transkribatzeko eta irakurleei edo ikusleei sentiarazteko. *Hiru ziren* antzerkia ez da salbuespen bat. Hasteko, bi amen artean testu ezberdintasun bat ikusten dugu. Hau da, Karolinaren pasarteak ez dira esaldi bat edo lerro bat baino luzeagoak ; aldiz, Margaritarenak paragrafoak dira. Luzetasun ezberdin horiek kalapita aberasten dute, Margarita gero eta haserreago baita, eta Karolinak gero eta kasu guttiago egiten baitio. Aldi berean, aberastasun horrek komedia indartzen du ; begiralea irri eginaraztera eramaten ahal du.

Esaldien luzetasuna ez ezik, hitzek ere komedian parte hartzen dute. Testuan zehar, hitz edo esamolde batzuen hautua, mesedegarria izan da. Adibidez, Margaritak erraten dituen hitzek haren haserrea azpimarratzen dute, « *Ustel apainduak, zuek !* » ; gainera, batzuetan haren pasarteak hasten dira Karolinaren azken hitzak errepikatuz, « *Ez zikindu nahi !* ». Horretan ere, *zikindu* hitza erabiltzeak drama gehiago ekartzen du antzerkian.

Azkenik, antzerkietan didaskaliak erabiltzen dira eszenaratzearen gidatzeko, informazioak gehituz. Hemen ere, didaskaliek hitzek bezala ezberdintasunak eta sentimenduak agerrarazten dituzte. Oraindik ere, Margaritaren haserrea eta komedia azpimarratzen dute ; baina, lehen partean aipatutako klase sozialen arteko ezberdintasunak erakusten dituzte ere. Hain zuzen, Karolina heldu delarik edo hitz egiten duelarik hitz horiek erabiliak dira « *Andere* » eta « *preziatuki mintzo* » ; alderantziz, Margaritak hitz egiten duelarik erraten dute « *Karolina imitatuz* ».

Beraz, testuaren forman ere komediaren aztarnak aurkitzen dira ; are gehiago, forma heldu da edukiaren aberastera. Bide batez, Piarres Larzabalek elementu horiek erabiltzen ditu trufatzeko.

Antzerkigilea, *Hiru ziren* antzerkia idazten hasi zen jende batzuk galdetu baitzioten. Eta, kontatzen duen istorioaren gibelean bere iritzia ematen du emigrazioari buruz : ez da fenomeno horren alde, Euskal Herria gaztez husten baitu ; eta, urrunago joateko, agerrarazten du fenomeno hori trafikoko bat dela (Echeverria, 2016). Aztertzen dugun pasartean, gorago erran bezala, beste gai batzuk ere aipatzen ditu eta, horren bidez bere pertsonaiez trufatzen dela iduri du, batez ere haurdunaldiari buruz. Testuan, esaldi hori agertzen da « *ene alabari gertatzen zaiona, zuri geratu zauntzula* » (Margaritak Karolinari). Horren azpian idazleak komentatzen duena da belaunaldiz-belaunaldi gauza berak gertatzen direla ; hobeto esanda, hurrek gurasoek egin duten bezala egiten dute, klase sozialak ez dira nahasten.

Bukatzeko, Piarres Larzabalen lehen antzerkiak jendearen irri eginarazteko ziren, baina, gero, bere antzerki gehienek, *Hiru ziren* bezala, gizarte istorioak eta arazoak agerian eman dituzte. Hala ere, azterketa horrek erakusten duen bezala, antzerkigileak komedia sartzen du

bere testuetan, edukiaren zein formaren aldetik, bere iritzia edo ikusmoldearen partekatzeko, baita ere, agian, jendearen irriarazten segitzeko.

2. Antzerkia, genero literario didaktikoa

2.1. Le théâtre dans les instructions officielles / Antzerkia programa ofizialetan

2.1.1. Cycle 1 / Lehen zikloan

Dans les instructions officielles du cycle 1, le théâtre s'inscrit dans le domaine d'apprentissage « *Agir, s'exprimer, comprendre à travers les activités artistiques* ». Dans ce domaine, trois objectifs sont déclinés (Hezkunde nazionala, *Programme du cycle 1*, 2020) :

- Développer du goût pour les pratiques artistiques : l'enseignant doit proposer des situations diverses aux élèves pour qu'ils puissent découvrir par eux-mêmes les possibilités qui s'offrent à eux.
- Découvrir différentes formes d'expression artistique : les élèves doivent pouvoir découvrir les différents champs du domaine artistique, dans le but de commencer à construire une culture artistique qui sera approfondie par la suite.
- Vivre et exprimer des émotions, formuler des choix : au travers des objectifs précédents, les élèves sont amenés à avoir des sensations qu'ils doivent apprendre à expliciter.

Dans ce domaine, il y a aussi trois sous-domaines, et le théâtre apparaît dans le dernier de ceux-ci, soit « *le spectacle vivant* » qui a pour objectif « *Pratiquer quelques activités des arts du spectacle vivant* ». On y lit donc qu'au cycle 1, il faut amener les élèves à découvrir, par le biais des arts du spectacle, les possibles usages du corps, autre que ceux utilisés quotidiennement, ainsi qu'à s'approprier un espace. Pour cela, l'enseignant leur proposera différentes activités tel que le mime ou l'invention de mouvement, et alternera les modalités, seul puis en groupe, afin que les élèves commencent à entrer en relation avec leurs camarades. De plus, il est expressément écrit qu'il faut permettre aux élèves « *d'ouvrir leur regard sur les modes d'expression des autres* », ce qui suggère que les élèves doivent pouvoir observer leurs camarades, ils devront donc être, à un moment des acteurs mais aussi à d'autres moments des spectateurs.

« Au fil des séances, l'enseignant leur propose d'imiter, d'inventer, d'assembler des propositions personnelles ou partagées. Il les amène à s'approprier progressivement un espace scénique pour s'inscrire dans une production collective. Il les aide à entrer en relation avec les autres, [...]. Grâce aux temps d'observation et d'échanges avec les autres, les enfants deviennent progressivement des spectateurs actifs et attentifs. » (B.O. école maternelle, 2015, p. 13)

Dans ce passage, l'espace scénique est évoqué. De ce fait, on pourrait aussi relier le théâtre à l'objectif « *Faire l'expérience de l'espace* » qui s'inscrit dans le domaine « *Explorer le monde : Se repérer dans le temps et l'espace* ». En effet, dans un projet de faire découvrir aux élèves des activités liées aux arts du spectacle vivant, ils seront amenés à investir un espace délimité, à s'y déplacer, etc. Ce qui rejoint donc ce qui est écrit pour cet objectif-là : « *L'expérience de l'espace porte sur l'acquisition de connaissances liées aux déplacements, aux distances et au repères spatiaux élaborés par les enfants au cours de leurs activités.* ».

2.1.2.Cycle 2 / Bigarren zikloan

Dans les instructions officielles du cycle 2 (Hezkunde nazionala, *Programme du cycle 2*, 2020), on trouve une continuité à ce qui a été travaillé au cycle 1. En effet, au cycle 1, il s'agissait donc d'amener les élèves à découvrir leur corps et ses capacités, ainsi qu'un espace qui sera, au fil du parcours scolaire, amené à être défini comme espace scénique. Au cycle 2, on va pouvoir davantage s'intéresser à la partie textuelle du théâtre. Selon les programmes, le théâtre s'articule entre diverses disciplines dont les enseignements artistiques - comme au cycle 1 - et le français.

Au cours de ce cycle, les enseignements artistiques sont dirigés vers le développement chez les élèves d'une sensibilité et d'une expression artistiques. Ces enseignements sont, ainsi, étroitement liés au domaine 3 du socle commun, « *La formation de la personne et du citoyen* », comme l'ont écrit les rédacteurs des programmes :

« [les enseignements artistiques] *contribuent ainsi à la construction de la personnalité et à la formation du citoyen, développant l'intelligence sensible et procurant des repères culturels, nécessaires pour participer à la vie sociale.* » (B.O. Cycle 2, 2018, p. 28)

Concernant le domaine du français - ou, dans notre cas, de la langue basque puisqu'on est en filière bilingue -, le théâtre est travaillé dans un premier temps au niveau du texte écrit. Celui-ci va faire l'objet d'une étude au niveau de la lecture et de la compréhension du texte, puisque les élèves doivent étudier, en littérature, cinq à dix œuvres par an, issues de la littérature patrimoniale (le théâtre en faisant partie) et de la littérature de jeunesse. Dans un second temps, le texte théâtral va aussi être travaillé au niveau du langage oral. En effet, dans l'étude d'une langue, que ce soit la langue maternelle ou une autre langue en cours d'acquisition, l'écrit et l'oral doivent être travaillés en parallèle puisqu'ils sont interdépendants :

« Les compétences acquises en matières de langage oral, en expression et en compréhension, sont essentiels pour mieux maîtriser l'écrit ; de même, la maîtrise progressive des usages de la langue écrite favorise l'accès à un oral plus formel et mieux structuré. La lecture à haute voix, la diction ou la récitation de textes permettent de compléter la compréhension du texte en lecture. » (B.O. Cycle 2, 2018, p. 10)

De plus, pour jouer une pièce de théâtre, il est nécessaire de mémoriser un texte qui, selon les programmes, *« constitue un appui pour l'expression personnelle en fournissant aux élèves des formes linguistiques qu'ils pourront réutiliser. »*

Enfin, les programmes invitent à croiser les enseignements *« pour consolider les compétences, transférer les acquis dans le cadre d'une pédagogie de projet interdisciplinaire »* (Hezkunde nazionala, *Programme cycle 2*). Ainsi, comme nous venons de le voir, le théâtre s'inscrit aussi bien dans les enseignements artistiques que dans l'enseignement de la langue. Or, il est aussi possible, selon le sujet ou le texte choisi, de faire aussi des liens avec d'autres disciplines telles que Questionner le monde ou l'Education physique et sportive.

2.1.3.Cycle 3 / Hirugarren zikloan

Au cycle 3 (Hezkunde nazionala, *Programme du cycle 3*, 2020), tout le travail qui aura pu être réalisé au cours des deux cycles précédents sera poursuivi et approfondi. Comme au

cycle 2, on retrouve le théâtre dans l'enseignement du français ; cependant, on lui associe cette fois-ci des compétences plus précises. Par exemple, dans le langage oral, la compétence « *Parler en prenant en compte son auditoire* » devra être travaillée puisque les élèves doivent savoir utiliser des techniques de mise en voix de textes. De plus, au niveau de l'écrit, et plus précisément de sa compréhension, les élèves ont commencé, durant le cycle 2, à appréhender le texte théâtre. Au cycle 3, ils devront poursuivre l'étude d'œuvres diverses issues de la littérature de jeunesse, ainsi que de la littérature du patrimoine ; et, au-delà de cela, ils devront « *être capable d'identifier les principaux genres littéraires et de recréer leurs caractéristiques majeures.* » (Hezkunde nazionala, *Programme du cycle 2*)

Dans ce cycle dit de consolidation, il est possible d'approfondir davantage le projet théâtral. En effet, les élèves pourront réutiliser et réinvestir tout ce qu'ils auront appris lors des années précédentes, tant au niveau du jeu théâtral qu'au niveau des écrits, dans un projet de création d'une pièce de théâtre qu'ils inventeront eux-mêmes. Pour ce faire, ils devront tout de même être aidés, guidés soit par l'enseignant lui-même, soit par des intervenants extérieurs plus experts dans ce domaine, qui pourront leur apporter de nouvelles connaissances.

2.2. Le théâtre dans le socle commun de connaissances, de compétences et de culture

Il faut souligner aussi, que le socle commun de connaissances, de compétences et de culture encourage la réalisation de projet (Hezkunde nazionala, *Socle commun de connaissances, de compétences et de culture*, 2015) . Ce socle commun de connaissances, de compétences et de culture recense l'ensemble des compétences, des connaissances, des valeurs qu'un élève doit acquérir tout au long de sa scolarité. Tout ceci est réparti selon cinq domaines.

Lorsque l'on monte un projet en classe, dans la plupart des cas les élèves sont amenés à travailler en groupe, pour cela ils doivent être capables d'échanger, de se partager des tâches, etc., en d'autres termes de collaborer. De plus, grâce aux projets, il est plus facile de mettre en avant l'interdisciplinarité, essentielle à l'apprentissage des enfants qui doivent comprendre

qu'un objet d'étude ne se cantonne pas seulement à une discipline mais qu'il peut aussi servir d'outil dans une autre discipline.

De ce fait, un projet autour de la création d'une pièce de théâtre peut être mis en lien avec plusieurs domaines du socle commun de connaissances de compétences et de culture :

- Domaine 1, « *Les langages pour penser et communiquer* » : le projet étant collectif, les élèves devront communiquer entre eux, mais surtout le projet s'appuyant sur le théâtre, les élèves devront mettre en voix un texte, que ce soit en français, ou dans une langue vivante étrangère ou régionale.

- Domaine 2, « *Les méthodes et outils pour apprendre* » : les élèves devront utiliser divers outils au cours du processus de création d'une pièce de théâtre. Ces outils auront soit pu être travaillés dans d'autres disciplines ou dans d'autres niveaux ou cycles, dans ce cas ils devront réinvestir leurs connaissances, soit ils n'auront pas été étudiés et devront l'être pendant le processus de réalisation, il s'agira donc de nouvelles connaissances à acquérir.

- Domaine 3, « *La formation de la personne et du citoyen* » : dans tout travail collectif, les élèves doivent respecter des règles et des consignes tout comme ils devront en respecter au cours de leur vie quotidienne. De plus, lors d'un travail réalisé en groupe, chaque membre peut avoir différentes idées ou pensées, il faut donc que les élèves se perçoivent comme membre d'un groupe et qu'ils s'y investissent, mais aussi qu'ils apprennent à respecter leurs camarades et leurs idées. On participe donc au développement des élèves en tant que personne, et à la formation de futurs citoyens.

- Domaine 5, « *Les représentations du monde et l'activité humaine* » : comme évoqué précédemment, le théâtre peut être travaillé au travers d'une projet interdisciplinaire. De ce fait, selon le thème, le sujet ou l'œuvre choisi, il est possible de travailler aussi bien le domaine questionner le monde (Cycle 2), que l'éducation physique et sportive, ou encore l'histoire et la géographie (Cycle 3) ou les sciences et technologies (Cycle 3). De plus, à travers ce projet de théâtre, les élèves pourront élaborer une mise en scène, voire même imaginer et concevoir le scénario pour les plus grands ; ils devront prendre en compte des contraintes telles que l'espace scénique, etc.

2.3. Antzerkia : hizkuntza, kultura eta norberaren adierazgarri

2.3.1. Klasearen aldetik

Lehenago ikusi dugun bezala, antzerkia lehen, bigarren eta hirugarren zikloko programa ofizialetan aipatua da, eta, oinarri komuneko dokumentuko zenbait arlo erabiltzeko aukera eskaintzen du. Baina, programek gomendatzen dutenez gain, klasean antzerkia eginarazteak zenbait ekarpen ditu. Lehenik, antzerkiaren inguruko lan bat proposatuz, argi dago irakasgai ezberdinak mobilizatzen ditugula, hala nola, frantsesa edo irakatsia den bigarren hizkuntza - gure kasuan, euskara -, literatura, kirola, artea, etab. Horren bidez, loturak egiten ahal dira ikasgaien artean, ikasleei erakusteko gai batzuk ez direla ikasgai batean sartzen bakarrik, baizik eta diziplinartekotasuna galdetzen dutela.

Hortaz, antzerki baten muntatzea bai beste ikasgaietan, bai aitzineko ikasturteetan edo zikloetan ikasitako jakintzak berrerabiltzeko bide bat izan daiteke. Edo, arlo ezberdinetan jakintza berriak eskuratzeko bidea ematen du. Beraz, argi da diziplinarteko proiektu baten bidez, lortutako ezagutzak beste egoera batzuetan erabiltzen ahal direla eta, are gehiago, azkartzen eta garatzen ahal direla.

2.3.2. Ikasleen aldetik

Antzerki proiektu bat plantan ezarriz klase batean, ikasleak aktiboagoak eta autonomoak izatera eramatea izango litzateke helburu bat. Izan ere, ikasleek parte hartu beharko dute antzerkiaren prestatzean, baita emanaldian ere. Gehienetan, halako proiektu baten egiteak motibatzen ditu ikasleak, gustatzen zaie pixka bat ezberdina baita, ez baitira beti egon. Motibazio horri esker, aktibitateetan gehiago inplikatzeko dira eta, ikaskuntza errazten du.

Segitzeko, argi da halako proiektu bat klasean egitean, talde lana nagusi izanen dela. Izan ere, helburua da ikasle guztiak proiektuan parte harraraztea, edo ideiak proposatuz idatz ekoizpenean - ikasleek berek idazten badute testua -, zein antzerkiaren azterketan eta

zuzendaritzan ; edo, beren iritzia emanaz. Ikasle bakoitzak ikuspuntu edo ideia ezberdinak izan ditzake, eta horiek guztiek proiektua bera aberasten ahalko dute. Beraz, elkarlan horren bidez, ikasleak talde bateko kide izatera eramaten ahal dira, baita pertsona gisa sentitzera ere. Hori dena, pertsonalki gara daitezten eta, berengan konfiantza gehiago izan dezaten, bai lotsatiak direnek, bai ez direnek.

Antzerki batean, antzerkilariak elkarrekin hitz egitera, eta elkarri ihardespenez ematera ekarriak dira. Ikasgela batean, ikasleek ere elkarrekin hitz egin eta lan egin beharko dute. Horretarako, sekuentziaren hastapenean, irakasleak ariketa txiki batzuk eskaintzen ahalko ditu. Horren helburua da ikasleek beste ikasleekin izaten ahal dituzten harremanez kontzientzia hartzea, eta, aldi berean, proiektuaren egiteko giro egoki baten sortzea.

Horrekin jarraituz, elkarlanari esker, irakasten diegu ikasleei beharrezkoa dela denek elkar errespetatzea. Izan ere, aitzinetik erran bezala, bakoitzak bere iritzia, bere ideiak ditu, eta ikasleek ulertu behar dute baitezpadakoa dela besteek dituztenak errespetatzea. Eta ez hori bakarrik, erakutsi behar diegu batzuetan beren ideiak zein besteen ideiak bata bestearen osagarri direla ; beraz, denak entzun behar direla. Horrek parte hartzen du pertsonaren eta herritarraren eraikitzean.

Bestalde, lehen mailako ikasleak ez dira oraindik usatuak denen aitzinean mintzatzen. Antzerkiaren egiteak horretan laguntzen ahal ditu. Publiko baten edo beste ikasleen aitzinean egin beharko dituzte emanaldiak, baina denok badakigu ez dela ariketa erraz bat. Beraz, sekuentzian zehar, entrenatzeko bideak eskaini behar dizkiegu, eta irakasleek horretan lagundu behar dituzte. Lan horri esker, emeki-emeki hobetuko dira eta berengan konfiantza hartuko dute, Arantxa Hirigoyenek adierazten duen bezala Euskal kultur erakunderako elkarrizketan (EKE, 2019). Hori ez da baztertu behar ; ikasleak ohartzera eraman behar dira gaitasun asko dituztela eskolan ikasi duten guztiari esker.

Azkenik, helburuak dira hirugarren zikloko ikasleei galdetuz antzerki baten pentsatzea eta idaztea, beren sormenaren garatzea, beren irudimenaren aitzinera ekartzea eta beren gaitasun artistikoetan kontzientzia hartzea. Arantxa Hirigoyenek erraten duen bezala, sormena

lantzeak ikasleekin « *errealitate horretatik [astirik hartu gabe, beti presatuak] ateratzeko parada eskaintzen digu, gogoetatzeko parada, hainbat gaien inguruan pausatzeko, iritzia emateko eta bereziki gazteengan ikustea zer munduan bizi garen* » (EKE, 2019).

2.3.3. Hizkuntzaren aldetik

Lehenik, gorago aipatu bezala, ohartu naiz ikasleak, ezagutza aski izan arren, ez direla ausartzen euskaraz mintzatzera. Bi arrazoi agertzen dira : ez dute ikusten ikasgelatik kanpo euskara erabiltzeko interesik, edo ez dute beren baitako konfiantzarik. Antzerkia horiei aurre egiteko bide egoki bat izan daiteke eta bultzatzen ahal ditu ikasleak euskara gehiago erabiltzera. Izan ere, proiektu horri esker, ikasleak errealitatera hurbiltzen diren beste testuinguru batzuetan euskararen erabiltzera eramaten ahal dira. Erakutsi behar diegu ikasleei bigarren hizkuntza hori ez dela bakarrik ikasgelako hizkuntza bat, baizik eta ikasgelatik kanpo ere erabiltzen ahal dela. Eguneroko bizitzan aurkitzen ahal dituzten egoerak taularatu, ikusiko dute frantsesa zein euskara erabiltzen ahal direla.

Hizkuntzaren erabilera errazteaz gain, antzerkiak hizkuntzari dagokion kultura ezagutzeko aukera eskaintzen du. Izan ere, proposatzen ahal dugu euskal idazle batetik edo obra batetik abiatzea. Horren bidez, ikasleek euskal kulturari buruz ezagutza gehiago izaten ahalko dituzte. Bestalde antzezlanean sartzeko, ikasleei proposatuak diren aktibitate ezberdinen bidez, landutako hizkuntzaren elementu adierazgarriak erabil daitezke. Hiztegiaren inguruko aktibitateak egiten ahal dira, ikasitako hitzak egoera zehatz batean erabiltzeko ; adibidez, bat-bateko elkarrizketak sortuz. Beste aukera bat euskal kulturaren pertsonaia nagusiak erabiltzea da, hala nola mitologiako pertsonaiak edo pertsona ezagunak.

3. Sekuentzia

Hausnarketa guzti horri lotuta, sekuentzia bat pentsatu eta sortu behar nuen¹, masterraren bigarren urte honetan, ikastaldiarendako errezibitzen nauen eskolan plantan ezartzeko. Hastapenetik, argi eta garbi banekien zer izanen zen nire lanaren proiektua, zer eginarazi nahi nien ikasleei : antzerki bat jokarazi, edo, gutxienez, antzerki zati bat. Alabaina, antzerkiaren arloan, beste edozein arlotan bezala, programez gain, beste zenbait aspektu kontuan hartu behar dira sekuentzia baten sortzeko.

3.1. Sekuentziaren nondik norakoak

3.1.1. Sekuentziaren helburuak

Gorago erran bezala, konturatu naiz elebidun sarean diren ikasle gehienak, euskarazko klaseetan izan arren, ez direla euskaraz mintzatzen beren artean. Pentsatutako sekuentziaren helburu bat horri lotua da. Hau da, orokorki, antzerki bat idazten edo jokatzen delarik, eguneroko egoerak hartzen ahal dira eredu gisa, adibidez : bi ezagunen arteko elkarrizketa bat, familia bateko kideen elkartzea, ostatu baten aitzinean entzuten diren solasak, etab. Horren bidez, erakutsi nahi nien ikasleei, euskara ez dela bakarrik tresna bat beste ikasgaien ikasteko, baina egunerokoan ere mintzatzen ahal dela. Bestela esanda, ikasleak ikasgelatik kanpo euskara gehiago erabiltzera bultzatu nahi nituen.

Horrez gain, elebidun zein elebatar klaseetan, beti lotsatiak diren ikasleak badira. Baina, klase elebidunetan, batzuen lotsa hizkuntzari lotua da. Gutxitan erabiltzen dutenez bigarren hizkuntza hori, ez dira eroso sentitzen besteen aitzinean hitz egiteko eta ez dira ausartzen parte hartzera. Antzerki baten jokatzekeo proiektua aspektu horretan erabilgarria da. Sekuentziaren hastapenetik, ikasleak taldeka banatuak izan dira, eta *Hiru ziren* antzerkiaren testu zati bat jokatu beharko zuten beste ikasleen aitzinean. Lan hori eginaraziz, nire asmoa zen ikasleek, edo, zehatzago izateko, lotsatiak diren ikasleek, beren baitako konfiantza ukan zezaten.

¹ ikus sekuentzia osoan 1. eranskinean : Sekuentziaren jarraipena

Azkenik, inportantea iruditzen zait elkar lana indartzea. Egunerokoan, ekintza zenbaitetarako besteen laguntza behar izaten ahal dugu ; alderantziz, ditugun gaitasunak lagungarriak izaten ahal dira besteentzat ere. Horrek erakusten du elkarren beharra badugula. Horretarako, ezinbestekoa da elkarrengan errespetua izatea, bestea, bere ideiak, bere izaera, bere gaitasunak errespetatzea. Eskolan, lehen urtetik goiti herritarren balioak transmititu behar diegu, talde lanaren bidez, adibidez.

3.1.2. Ikastaldiarendako errezibitu nauen eskolaren presentaketa

Masterraren bigarren urte horretan, zazpi asteko ikastaldi bat egin dut Aiherrako eskola publikoan. Eskola horrek RPI² batean parte hartzen du Izturitzeko eskola publikoarekin. Ama eskolako eta CP-ko ikasleek (6 urte) Isturitzeko eskolan elkartuak dira eta, CE1 mailatik CM2 mailarat (7 urtetatik 10 urtetara) Aiherrako eskolan dira. Bi eskolek elebidun sarea segitzen dute, beraz, ikasleek lehen urtetik euskara entzuten eta ikasten dute.

Xehetasunetan sartzeko, Aiherrako eskola publikoan, ikasleak bi klasetan partekatutak dira : lehenean, CE mailako 16 ikasle dira ; bigarreanean, CM mailako 16 ikasle dira. Proposatutako sekuentzia, CM mailako ikasleekin egin dut. Klase horretan, 9 ikasle CM1 mailan dira, eta beste 7 ikasleak CM2 mailan dira. Orokorki, ikasle guztien artean, giro on bat bada ; denak lagunak dira, lan arte denboran elkarrekin jostatzen dira. Euskararen aldetik, ez da ikaslerik etxean euskaraz hitz egiten duenik ; are gutxiago, ikasle batzuen gurasoek ez dira euskaraz mintzatzen. Hori sentitzen da, elkarrekin ari direlarik, gehienetan, frantsesez ari baitira. Hala ere, gehienek maila ona dute ulermenean eta ahozkoan, huts batzuk egin arren. Ikusi dugunaren arabera, erraten ahal dugu gai direla elkarrekin euskaraz mintzatzeko, arazoa da frantsesez mintzatzeko usaia hartu dutela.

Eskola horretan, bi irakasle klase horietaz arduratzen dira. Erran bezala, eskolak elebidunezko ibilbidea proposatzen du ; hortaz, irakasle batek frantsesezko kurtsoak ematen

² RPI = Regroupement Pédagogique Intercommunal

ditu, bigarren irakasleak euskaraz ematen dituelarik. Denbora erdiz klaseak erdizak partekatzen dituzte, astean zehar bi egunez egonez bakoitzean.

Bi irakasleez gain, beste pertsona batek lan egiten du klase horiekin, eta bereziki bi ikaslerekin. Hau da, AESH³ bat heldu da eskolarat CE2 mailan den ikasle bat laguntzeko ; baina, urtarriletik, CM1 mailan den neska batendako etortzen da ere. Langile horren ekarpen nagusienetako bat elebidunez ari dela da. Izan ere, nahiz eta elebidun sarean izan, laguntza behar duten ikasleei frantsesez ari den laguntzaile bat eskaintzen zaie, euskara dakitenek gutxi baitira lanbide horretan. Beraz, hemen, biziki lagungarria da, irakasleentzat zein ikasleentzat, halako AESH bat izatea.

Azkenik, ikastaldi horren egiteko, masterra egiten duen ikaskide bat banuen ondoan.

3.1.3. Kontuan hartu beharreko parametroak

3.1.3.1. Ikasgelaren antolaketa


Sekuentzia sortzeko, erran bezala, programetarik kanpo beste puntu batzuk kontuan hartu behar izan ditut.

Lehenik, ikasgelaren antolaketa orokorra begiratu dut. Eraikin berean, beste bi gela dira, eta horietara joateko, ikasgelatik pasatu behar da. Alde batean, liburutegia atzematen da. Bertan, apalategi batzuk dira, euskaraz eta frantsesez diren liburu zenbaitekin. Gela horrek leku libre asko eskaintzen du ere. Bestalde, motrizitate gela bada. Gela hori nahiko handia ikasle guztiak sarrarazteko, baina, ez dago leku nahikorik kirola egiteko. Beraz, erabilia da kiroleko tresnen biltzeko. Bi leku horietaz gain, ikasgelaren ondoan aterpe bada ere. Euria delarik, irakasleek erabiltzen dute kirola egiteko tokia baita.

Ikasgelaren barnean, mahaiak lerroka kokatuak dira, arbelera itzuliak. Bi izan ezik, denak banakako mahaiak dira eta, elkarretarik tartekatuak dira. Klase horretan bi maila

³ AESH = Accompagnant des Elèves en Situation de Handicap

elkartuak dira ; baina, ikasgai batzuetan, irakasleak desberdintzea egin behar du mailen arabera. Esaterako, matematiketan, ariketen desberdintzea egiten du zenbakiak mailari egokituz. Horrenbestez, ikasgelaren antolaketan, bi irakasleek hautatu dute CM2-ko ikasleak elkartzea alde batean eta CM1-eko ikasleak beste aldean. Alabaina, beste ikasgai askotan, mailak nahasten dituzte talde lanen egiteko.



1. irudia : Ikasgelaren antolaketaren eskema

3.1.3.2. Ikasleak

Kontuan hartu behar nituen parametroenetarik inportanteena ikasleak dira. Izan ere, klaseetan proposatzen ditugun saioak ez dira berak izanen klase batetik bestera. Beti, egokitu behar dira klase bakoitzari. Beraz, hemen, sekuentziaren sortzeko, kontuan hartu dut ikasleen kopurua, bakoitzaren gaitasunak eta zailtasunak. Adibide bat emateko, klase horretan bizpahiru ikasle zailtasunetan dira ikasgai ezberdinetan, aldiz, beste ikasle batzuek errazki ulertzen dute galdetua dena eta gai dira besteei esplikatzen ; beraz, proposatu nahi nien talde lana egiteko, egokiagoa zen talde heterogeneok egitea.

Horrekin jarraituz, beharrezkoa zen ikasleen hizkuntza-maila aztertzea, batez ere testuaren zatiak hautatzeko eta rolen banaketa egiteko. Klasean mailak desorekatuak dira. Ulermenaren aldetik, oro har, maila on bat bada. Aldiz, ahozkoaren aldetik, batzuk ongi hitz

egiten badute eta esaldi egokiak egiten badituzte, batzuk zailtasunetan dira eta oinarrizko punttu batzuk ez dituzte oraindik menperatzen. Hori dena buruan izanda - ikasleen kopurua, maila, gaitasunak eta zailtasunak -, testu zatiak hautatzen ahal nituen, rolen banaketa eginez aldi berean. Hor ere, kasu eman behar nuen banaketan batzuk gai baitira lerro ainitz dituen pertsonaia baten jokatzeko, baina, beste batzuk, duten mailarekin, testu laburrak izan behar dituzte, jakinez testu hori buruz ikasi beharko dutela erakusketarako.

3.1.3.3. Materiala

Edozein klaseren egiteko, irakasle batek lan-tresnak erabiltzen ditu. Horiek ere kontuan hartu behar nituen, jakin behar nuen zer erabiltzen ahal nuen edo zer ekarri beharko nuen. Irakaslearekin ikusi ondoren, horra eskolan zen eta erabiltzen ahal nuen materiala : arbela, paperboard afitxak, fotokopiagailua, proiektagailua eta liburutegian eta motrizitate gelan diren tresna guztiak. Azken saioko erakustaldien aztarna atxikitzeke, erabaki nuen nire tableta ekartzea.

Saioen egiteko beharko nituen tresnez gain, zaindu ditut ikasleek antzerkia egiteko beharko zituzten objektuak. Orokorrean, tresna guztiak eskolan bertan aurkitzen ziren.

3.1.3.4. Denbora eta espazioa

Saioen jarraipena prestatu aitzin, gogoan izan behar nuen zenbait saiotan egingen nuen sekuentzia. Alabaina, bi aste gelditzen zitzaizkidanez Aiherrako eskolan, mugatua izan naiz. Erran bezala, irakasleak aste batean bi egun oso pasatzen ditu CM klasearekin. Horrek suposatzen du lau egun nituela nire sekuentziaren egiteko, beraz, lau saio. Baina, irakasleari erakutsi diodalarik proiektua, adostu dugu beste saio baten gehitzea, eta orduan, egun batean bi saioen egitea.

Bukatzeko, antzerki baten prestatzeko, argi dago espazioa behar dela. Gainera, talde lan bat proposatzen dudanez, talde bakoitzak toki bat beharko du. Zorionez, eskolak leku ezberdinak eskaintzen ditu, klasearen antolaketak erakusten duen bezala : ikasgela,

liburutegia, aterpea eta motrizitate gela. Horiei guztiei esker talde bakoitzak leku batean lan egiten ahal zuen, beste taldeak trahatu gabe.

3.1.4. Ikasleek eskura dituzten tresnei buruzko hausnarketa

3.1.4.1. Ahotsa lantzeko

Antzerki bat ikusle batzuen aitzinean emaiten da, beraz, ozenki hitz egin behar da denek entzun dezaten. Horretarako, antzezleek, edo, gure kasuan, ikasleek, beren ahotsa prestatu behar dute. Gehienetan, prestaketa hori ariketa batzuen bidez, edo zehatzago izateko, ahots-jokoen bidez egiten da. Alabaina, urte honetan, Aiherrako eskolako euskarazko irakasleak antzerki proiektu bat zuen jadanik. Abenduan, Olentzerori buruzko testu labur bat landu eta antzeztu dute, eta irakasleak ahots-jokoak eginarazi zizkien ikasleei.

Horrenbestez, nire sekuentziaren jarraipenean, hautatu dut ber ariketak⁴ eginaraztea. Hautu hori egin dut denbora pixka bat irabazteko. Izan ere, jadanik eginak dituztenez, ezagutzen dituzte, badakite nola egin behar diren. Orduan, denbora gutxiago pasatu behar nuen ariketak esplikatzin eta adibideak ematen, segituan egiten ahal genuen jokoak. Bestalde, ariketa txikiak direnez, bizpahiru joko ezberdin eskaintzen ahal nituen beroketa gisa.

3.1.4.2. Testua lantzeko

Gorago aipatu bezala, Piarres Larzabalen *Hiru ziren* antzerkiaren lau zati eginaraztea hautatu dut. Baina, ezinbestekoa zen ikasleekin testu osoaren aipatzea (testuingurua, gertaldi desberdinak, pertsonaiak, istorioa bera, etab.). Horretarako, testua aitzinetik prestatu nuen, prozesu horren bidez :

- Antzerkia irakurri : testu hori hautatu aitzin osorik irakurri banuen ere, bi aldiz gehiago irakurtzea erabaki dut, nire ulermena ziurtatzeko, eta aspektu ezberdinak harrapatzeko ;

⁴ ikus 12. eranskina : Ahots-jokoen zerrenda

-
- Bilduma⁵ bat idatzi : irakurketa horien ondoren, bilduma txiki bat idatzi dut. Nire asmoa zen bilduma hori ikasleen dokumentuetan sartzea eta lehen saioan erabiltzea, testua ikasleekin aipatzeko ;
 - Pertsonaien zerrenda⁶ sortu : testuan zehar pertsonaia asko agertzen dira leku ezberdinetan. Orduan, zerrenda bat egin dut pertsonaia guztien izenak emanez eta, horrekin batera, azalpen txiki bat.
 - Zailtasunak aurreikusi : ikasleei eskaintzen diegularik testu bat, aurreikusi behar dira ikasleen ulermena tratatzen ahal duten puntuak, erantzun bat ekartzeko.

Azken puntu horri aurre egiteko, tresna batzuk pentsatu ditut. Lehen zailtasuna lexikoa zen. Testu bat lantzen delarik, maiz ezezagunak diren hitzak edo hitz zailak agertzen dira. Horretarako, ikasleen dokumentuak prestatzean, hautatu dut bakoitzari hiztegi txiki bat eranstea.

Bestalde, testu zati horietan, hitzez gain, badira ezezagunak diren forma batzuk. Adibide argiena toka-nokaren erabilera da. Izan ere, antzerkian zehar, pertsonaiak elkarrekin solasean ari direlarik, toka-noka erabiltzen dute. Alabaina, gaur egun, gero eta gutxiago entzuten eta erabiltzen da forma hori, « zuka » forma nagusitu baita. Irakaslearekin aipatuz, jakin dut ez zutela oraindik ikusi hori. Beraz, saio batean landu beharko nuen forma hori ikasleekin, ikasgai labur eta sinple bat idatzi dut⁷.

Azkenik, garrantzitsua iruditzen zitzaidan ulermena ongi lantzea. Antzerki bat jokatzeko eta bereziki rol bat hartzeko, ezinbestekoa da gertatzen dena ulertzea emozio eta jardura egokiak erakusteko. Gainera, hautatutako zatietan, egoera batzuk zailak dira ulertzeko. Adibidez, bigarren taldeko testuan, zaila izaten ahal da harrapatzea Pantxok haurdun eman duela Margaritaren alaba, baina hori ulertu gabe ezin da eszena ongi jokatu. Beraz, ulermena laguntzeko eta sakontzeko, talde bakoitzari dagokion idatzizko galdeketa bat⁸ sortu dut.

⁵ Ikus 2. eranskina : Ikasleen dokumentua

⁶ Ikus 3. eranskina : Pertsonaien zerrenda

⁷ Ikus 5. eranskina : Toka-noka ikasgaia

⁸ Ikus 4. eranskina : Ulermen fitxak

3.2. Sekuentziaren presentaketa⁹

3.2.1. Sekuentzia saioz saio

Antzerkiari buruzko plantan ezarri dudan sekuentzia, 5 saiotan partekatu dut. Saio guzti horien ondoren, ikasleek emanaldi bat egin behar zuten beste klaseko ikasleen eta irakaslearen aitzinean.

Lehen saioan, sarrera gisa, proiektua aurkeztu eta gero, antzerkia eta idazlea aipatu eta deskubritu ditugu. Ikasle bakoitzari fitxa¹⁰ bat banatu diot, testuaren eta antzerkigilearen aurkezpenekin eta bakoitzak jokatu behar zuen testu zatiarekin. Lehenik, Piarres Larzabali buruzko testua irakurri dute bakarrik, eta, gero, ahoz, galdera batzuk eginez, komentatu dugu nor zen, zer egin duen, etab. Segitzeko, *Hiru ziren* antzerkiaren laburpena begiratu dugu, eta, aitzin bezala, galderak pausatuz, agerrarazi ditugu informazio nagusiak : pertsonaia nagusiak, tokiak, gertatzen zaiena. Horrekin jarraitzeko, eta ikasleek hobeki ulertzeko antzerki osoa, testua erakutsi diet arbelean, banaketa azalduz : 5 gertaldi, gertaldi bakoitza toki batean pasatzen. Sortu nuen pertsonaien zerrenda ere erakutsi diet eta, orokorki aipatu ditugu. Saio horen bukatzeko, proposatu diet bakoitzak bere testua irakurtzea, ikusteko hiztegiaren aldetik arazorik duten eta ezagutzen ez dituzten hitzen itzulpena emateko ; baina, lehenik, berriz aipatu ditugu testu mota horren ezaugarriak : pertsonaien izenak bazterrean, didaskaliak italiko, etab.

Denbora gutxi falta zenez erakustaldia aitzin, galdetu diet ahalik eta fiteen hastea beren testua ikasten.

Bigarren saioan, sakonago sartu gara testu zatien ulermenean. Hurrengo saio guztietan bezala, hasi gara ahoz oroitarazteko fase bat eginez : galdetu diet esplikatzea aitzineko saioan ikusi genuena, esplikatzea nor zen Piarres Larzabal eta antzerkian gertatzen dena kontatzea. Ikasle batzuk gehitu dute testua ikasten hasi direla baina forma batzuk ez dituztela ulertzen. Beraz, toka-nokaren azalpenarekin jarraitu dugu. Arbelean esaldi bat idatzi dut eta galdegin

⁹ Ikus 1. eranskina : Sekuentziaren jarraipena

¹⁰ Ikus 2. eranskina : Ikasleen dokumentua

diet forma ezagutzen duten ala ez, nor mintzo zen nori, etab. Horrela, nahiko arinki, ikusi dugu nola erabiltzen den hi pertsona, eta elkarrekin, afixa bat sortu dugu. Gero, lekuz aldatuz, taldeka elkartu dira eta ulermen fitxa¹¹ banatu diet. Saio horretarako, 4 heldu ginen klasean (irakaslea, AESH pertsona, nirekin batera ikastaroa egiten duena eta ni) ; beraz, bakoitza egon da talde batekin laguntzeko. Bukaeran, talde bakoitzak bere testua irakurri du, ikasleek beren pertsonaiak eginez.

Hirugarren saioan, aurrekoan bezala, oroitarazteko fase bat egin dugu ahoz, eta segitu dugu irakurketa bat eginez taldeka. Gero, aztertu dugu nola jokutzen den antzerki bat. Aipatu dugu zer begiratu behar den testuan pertsonaiak behar den bezala antzezteko. Adibidez, argiki ikusten den lehen elementua didaskaliak dira. Ikasleek badakite didaskaliak ez direla erran behar, informazioak ekartzen dituztela edo pertsonaiei buruz, edo tokiari buruz edo mugimenduari buruz. Ikasleek erran dute pertsonaia baten jokatzeko emozioak kontuan hartu behar direla ere. Saio horren bigarren partean, proposatu diet taldeka beren eszenaren prestatzea, baina, aurretik, beroketa gisa, ariketa batzuk egin ditugu elkarrekin motrizitate gelan. Eskolak toki zenbait eskaintzen dituen, talde bakoitza toki batera joan da. Bitartean, taldeen artean pasatzen nintzen aitzinamenduaren ikusteko, baita laguntza piska bat eta gomendioak emateko ere.

Laugarren saioa, hirugarren saioaren egun berean egin dugu. Saio horretan, oroitarazteko fasea ez dugu ahoz egin baizik eta idatziz. Horretarako, galdeketa fitxa¹² bat banatu dut eta presentatu dut arbelean. Gero, beroketa jokoak egin eta, ikasleak taldeka eman dira eta beren antzerkia prestatzen segitu dute. Goizean egindako saioan bezala, taldeen artean pasatu naiz proposamenen ikusteko eta, berriz ere, gomendioen emateko. Saioaren bukatzeko, talde guztiek beren antzerkia egin dute beste ikasleen aitzinean. Horren bidez, galdetu diet begiratu duten ikasleei oharren eta aholkuen ematea eszenaren hobetzeko.

Azkenik, bosgarren saioan emanaldiak egin ditugu. Utzi dizkiet 10 minutu azken entrenamendu baten egiteko taldeka. Bitartean ikasgela prestatu nuen mahaiak pusatuz,

¹¹ Ikus 4. eranskina : Ulermen fitxak

¹² Ikus 6.eranskina : Galdeketa fitxa

emanaldien egiteko espazioa izateko. Horren ondoren, elkartu gara eta, testuaren ordena atxikiz, taldez talde beren antzerkia jokatu dute. Sekuentzia osoaren bukatzeko, bilan bat egin dugu. Galdetu diet erratea zer pentsatu duten egin dugun lan guztiari buruz, zer ikasi duten, zer maitatu duten eta zer ez, eta zer ekarri dien, lehenik idatziz iritzi fitxaren¹³ bidez eta gero ahoz.

3.2.2.Egindako aldaketak

Aiherrako eskolan plantan ezarri aitzin, sekuentziaren jarraipen bat idatzi nuen. Alabaina, saioak ez dira beti planifikatzen ditugun bezala pasatzen : fase batzuek denbora gehiago edo gutxiago irauten dute, faseen ordena aldatzen ahal da, fase batzuk ez ditugu egiten, etab. Nire sekuentzian, saioak joan ahala aldaketak egin izan behar nituen.

Aldaketa nagusiak bigarren saioan agertu dira. Hastapenean, pentsatu nuen toka-noka aipatzea ulermena egin ondoren, eta bakoitzak bere testuan esaldiak transformatzea ulergarriagoa izateko. Baina, oroitarazteko fasean ikasle batzuek aipatu zidatenez aditz forma hori, segidan landu dugu ; aurreikusitako nuen hirugarren fasea, bigarren fasea bihurtu da. Eta ez hori bakarrik, esaldien transformatzeko fasea ez dugu batere egin, ez baitziren esaldi asko eta ulermena landu dugularik taldeka, zuzenki egina izana baita.

3.2.3.Ebaluaketa tresnak

Egin dudana sekuentzian, zenbait aspektu ebaluatzea entseatu naiz. Lehenik, Piarres Larzabalen obra bat hautatuz, ezagutarazi nahi nien euskal antzerkigile famaturen bat. Horrez gain, *Hiru* ziren testuaren bidez aipatu nahi nuen, lehen, gizartean zegoen mugimendu bat, eta gaur egun oraindik segitzen duena : emigrazioa. Saio hastapen guztietan, oroitarazteko fase bat egin dugu ahoz, horiek guztien berraipatzeko. Gorago erran bezala, laugarren saioan oroitarazteko fase hori ez dugu ahoz egin, baizik eta idatziz. Izan ere, ebaluatu nahi nuen ikasleak zertaz oroitzen ziren, zer ikasi zuten egin genuen lanari esker. Horretarako, galdeketa

¹³ Ikus 11. eranskina : Iritzi fitxa

fitxa¹⁴ bat sortu nuen, beste saioetan ahoz egiten nituen galderak erabiliz : antzerkiaren titulua, idazlearen eta pertsonaia nagusien izenak, non eta zer pasatzen den, etab. Gainera, kasu eman nuen galderen formen aldatzea : lehen galderetan ikasleek erantzuna idatzi behar zuten ; beste galderetan inguratu behar zuten hiru proposamenen artean erantzun egokia.

Azken saioan, ikasleek emanaldiak egin dituzte, eta horiek ere ebaluatu ditut, sekuentzia horretan, antzerki baten jokatzeko baitzen proiektua. Horretarako, behaketa fitxa¹⁵ bat pentsatu dut ikasle bakoitzaren aztertzeko. Taula hori egiteko, landuak izan ziren puntu guztiak kontuan hartu ditut. Zutabe batean, ebaluatu dut testuaren ezagutza, galdetua bainuen testuaren ikastea. Bestalde, begiratu dut sekuentzian zehar aipatu genituen aspektu ezberdinak baliatzen dituzten ala ez ; esaterako, pertsonaien emozioak agerrarazten dituzten, objektuak eta espazioa erabiltzen dituzten behar direlarik, eta, kontuan hartzen dituzten haiekin ari diren pertsonak.

Emanaldiak egitean, aldian talde bakar bat pasatzen denez, beste ikasleak behatzaileak dira. Alabaina, nahi nuen behatzaile horiek ere parte hartzea ebaluazioan. Beraz, binaka edo hirunaka, behaketa fitxa bat bete behar zuten antzerkia jokatzeko zuten ikasle baten ebaluatzeko.

Bukatzeko, sekuentzia amaitu aitzin, bilana egin dugu elkarrekin. Bilan horretan, iritzi fitxa¹⁶ bat banatu diet galdera batzuekin. Horren bidez, jakin nahi nuen zer pentsatu zuten egindako lan guztiari buruz, nola sentitu zuten beren burua, zer erakarri zien, etab.

3.3. Analisisa

3.3.1. Ebaluaketan emaitzak

Aipatutako dokumentuei esker, ikasleen lana sekuentzian zehar ebaluatu ahal izan dut. Lehenik, begira ditzagun laugarren saioeko galdeketa fitxaren emaitzak.

¹⁴ Ikus 6. eranskina : Galdeketa fitxa

¹⁵ Ikus 8. eranskina : Behaketa taula

¹⁶ Ikus 11. eranskina : Iritzi fitxa

1. taula : Galdeketa fitxaren emaitzak¹⁷

Ikasleak	Nota /10	Ikasleak	Nota /10
1 ikaslea	6	9 ikaslea	10
2 ikaslea	7	10 ikaslea	6
3 ikaslea	4	11 ikaslea	6
4 ikaslea	2	12 ikaslea	4
5 ikaslea	9	13 ikaslea	10
6 ikaslea	9	14 ikaslea	2
7 ikaslea	6	15 ikaslea	10
8 ikaslea	8	Batezbestekoa	6,6

Ikusten dugu ikasleen notak 2 eta 10-en artean kokatzen direla, eta batezbestekoa 6,6/10 dela. Orokorki, bizpahiru ikasle izan ezik, gehienek ongi erantzun diete galderari. Hori lotzen ahal diegu ahoz egin ditugun oroitarazteko faseei. Izan ere, erabili ditut ahoz egindako galdera berak, eta fase horietan, ikasle zenbaitek parte hartu zuten, entseatzeko nintzen hitza ematera ikasle guztiei. Iduritu zitzaidan informazio ezberdinak gogoan zizutela. Alabaina, galderak zehatzago begiratzen baditugu, ikusten dugu informazio batzuk ez direla sartu.

2. taula : Erantzun xuxenak galdezka

	Erantzun xuxenak	Ehunekoak
1 galdera	5	33
2 galdera	13	87
3 galdera	14	93
4 galdera	6	40
5 galdera	13	87
6 galdera	7	47
7 galdera	14	93
8 galdera	11	73
9 galdera	7	47
10 galdera	9	60

¹⁷ Taula zehatzagoa aurkitzeko, ikus 7. eranskina : Galdeketa fitxaren emaitzak






Adibidez, lehen galdera har dezagun, « *Zein da egiten dugun antzerkiaren titulua ?* », ikasleen herenak bakarrik ongi erantzun du ; piska bat harrigarria da jakinez lehen saioan denbora hartu genuela aipatzeko, saio guztietan berriz erran genuela, arbelean idatzia izana zela eta, gainera, haien testuaren azpian agertzen zela.

Bosgarren eta zazpigarren galderari esker, eta ahoz egindako oroitarazteko faseei esker, erraten ahal dugu ikasleek ulertu dutela emigrazioa nozioa. Gehienek ikasi dute *Hiru ziren* antzerkiaren bidez, garai batean, jendea beste herrialde batera joaten zela diruaren irabazteko.

Hori guztia ikusita, nire ondorioa lana erdi lortua dela da. Hau da, erantzun guztien artean 66% xuxenak izan dira¹⁸, beraz erdia baino gehiago. Bestalde, ikusten da ikasle batzuek ez dituztela informazio guztiak harrapatu. Baina, erantzun txar zenbait izan dituzten ikasleak, egunerokoan zailtasunetan diren ikasleak dira. Eta, gainera, ez dira ohituak halako galdeketa fitxa bati erantzuten. Hala ere, iduritzen zait aitzineko saioetan ahoz oroitarazteko faseak eginarazteak, ikasle gehienak lagundu dituela.

Segitzeko, bosgarren saioan, ikasleak beste ikasleen eta nire artean ebaluatu ditugu, antzerkia egiten zuten bitartean. Bi ebaluazioak konparatu ondoren, horra emaitzen taulak :

3. taula : Behaketa taulen emaitza orokorrak¹⁹

					
Bere testua ezagutzen du.				3	13
Emozioak erabiltzen ditu.			2	6	8
Objektuak eta espazioa erabiltzen ditu.			1	4	11
Bestekin jokatzeko du.				3	13

¹⁸ ikus 7. eranskina : Galdeketa fitxaren emaitzak

¹⁹ Taula zehatzagoa aurkitzeko, ikus 10. eranskina : Behaketa taulen emaitzak

Orokorrean, ikasleek ongi jokatu dituzte antzerkiak. Landu ditugun puntuak (emozioak, mugimenduak, etab.) kontuan hartu dituzte eta seriooki aritu dira. Lehen egunetik, hasi ziren beren testuak ikasten eta, azken saioan, agertu da, emanaldiak egitean denek baitzekizkiten. Bi ikaslek ufatzaileen laguntza behar izan dute, baina, gehiago urduritasun kontu bat zen. Entrenamenduetan, ikusi nuen testua ikasi zutela.

3.3.2. Analisia orokorra

Oro har, iduritzen zait ikasleei gustatu zaiela sekuentzia. Saio guztietan seriooki lan egin dute, denek parte hartu dute eta interesa erakutsi dute. Antzerkiaren prestaketan inplikatu dira, lehen egunetik, gomendatu nien bezala, hasi dira testua ikasten. Saioz saio galderak edo oharrek baldin bazituzten, klase osoarekin partekatzen zituzten.

Azken saioan, banatu nuen iritzi fitxa bat haien oharren biltzeko. Agertu diren erantzunak taula batean batu ditut :

4. taula : Iritzi fitxaren erantzunak (ehunekotan)

Galderak	Erantzunak eta erantzun kopuruak							
1	Ontsa zen	87,5	Kontent	6,25	Antzerki bat egitea ez da zaila	6,25		
2	Antzerkia egitea	25	Dena	31,25	Testua erratea	18,75	Emozioak jokatzea	6,25
	Rolak	6,25	Antzerkia prestatzea	6,25				
3	Fitsik ez	81,25	Testua ikastea	12,5				
4	Hitz batzuk	31,25	Nola egiten den antzerki bat	25	Dena ikasi dut	12,5	Gauza ainitz	6,25
	Pertsonaia nagusien izenak	6,25	Euskaraz ikastea	6,25	Piarres Larzabal	6,25		
5	Ongi/Kontent/Normala	62,5	Beldur	37,5				
6	Normalki/Ongi	50	Beldurtua eta kexu	43,75				
7	Plazera	12,5	Antzerkia segitu nahi dut	31,25	Konfiantza	6,25		

Taula horrek baieztatzen du ikasleek maitatu dutela antzerkia egitea ; are gehiago, ikasle batzuek proiektu hori berriz egin nahi dute, herenak hori erantzun baitu azken galderan. Bosgarren eta seigarren galderek, galdetzen dute nola sentitu duten beren burua antzerkia prestatzean eta jokatzean. Bietan, sentimendu berak aurkitzen ditugu, ongi izatea eta beldurra. Ongizatea agertu da nagusiki bi galderetan, beldurrari doakionez nabarmenago zen antzerkia jokatzekoan prestatzeko momentuan baino. Hori ez da harritzekoa, aurreikusia nuen estresatuko zutela ariketa hori egitean. Baina, emaitzak ikustean, estresa hori ez da hainbeste agertu, ikasleek aurre egin diote. Gainera, azken galderan, ikasle batek erantzun du bere baitako konfiantza hartu duela lan horren bidez.

Bestalde, sekuentzia horretan, iduritu zait zailtasunetan diren ikasleek leku bat atzeman dutela. Izan ere, egunerokoan, gutxitan parte hartzen duten ikasle zenbait besteak bezain inplikazio azkar bat eskaintzen ikusi ditut, bai saioetan parte hartuz, bai antzerkiaren prestatzean ideiak emanez. Uste dut, antzerkia aspektu horretan lagungarria dela, proiektuak motibatzen baititu ikasleak.

Horrez gain, erraten ahal dugu ikasleek, lan horren bidez, euskal antzerkiaren figura nagusi bat deskubritu dutela. Lehen saioaren hastapenean, inork ez zuen Piarres Larzabal ezagutzen ; aldiz, azken saioan, gehienek bazekiten azaltzen nor zen, zer egin zuen, nongoa zen, etab. Berdin, emigrazio fenomenoari dagokionez. Horretarako, pentsatzen dut merezi duela halako lan baten proposatzea, euskal autoreen ezagutarazteko ikasleei, baita Euskal Herriaren historiaren erakusteko euskaldunen ikuspuntutik.

Bigarren saioan, testuen ulermena landu dugularik ulermen fitxen bidez, lau heldu izatea arras lagungarria izan da, heldu bat egon baita talde bakoitzarekin. Horri esker, laguntzen ahal genituen talde guztiak aldi berean eta denbora piska bat irabazi dugu. Aldiz, bakarrik izan banintz klasean, zailagoa izango zen talde guztien ulermena kudeatzea. Agian, beste modu batez pentsatu beharko zen fasea edo galdeketa fitxa.

Denboraren aldetik, gorago aipatu bezala, mugatua izan naiz, eta bost saioz egin izan behar nuen sekuentzia. Ikasleek, gauza baliagarri batzuk ikasi badituzte ere, uste dut halako lan bat gehiago sakondu behar dela. Iduritzen zait, gainera, aipatu ditugula puntu ezberdinak, emigrazioa edo Piarres Larzabal besteak beste. Gainera, jadanik hasi zirenez antzerkia ikusten beren irakaslearekin, nozio batzuk ezagutzen zituzten, adibidez testuaren egitura edo zer begiratu behar den pertsonaia baten antzezteko. Baina, antzerkia ikusi ez duen klase batean, hori dena aipatu eta landu beharko litzateke. Sekuentzia luzeago batekin, hobeki aztertzen ahalko lirateke aspektu ezberdinak, eta, agian, ikasleek hobeki menperatzen ahalko lituzke.

Bukaera

Ikerketa lan horen egiteko, nire esperientziatik abiatu naiz. Lehen hezkuntzako ikasle nintzelarik, antzerki proiektu bat genuen urtero. Garai hartan, ez nintzen ohartu antzerki baten muntatzea eta ikasgaiak hain lotuak zirenik. Gaur egun, irakasle izatekotan, beste ikuspuntu bat badut, eta, memorio horretarako egin dudan lanari esker ikusten dut bata bestearen osagarri direla.

XX. mendeko euskal antzerkia aipatu dugularik, ikusi dugu lan asko izan zirela. Piarres Larzabalek eta beste autore ospetsu batzuek, garrantzia izan dute euskal antzerkiaren historian. Beraz, irakasle izanez, gure alde da kultura horen transmititzea gazteei, eta beharrezkoa da egitea, ez galtzeko. Gainera, Hazkunde Nazionalak idatzi dituen programa ofizialetan, antzerkiaren lantzea gomendatua da. Hala ere, sekuentzia bat sortzean, nahi ditugun modalitateak hautatzen ahal ditugu, askatasun piska bat baitugu.

Ikusi dugu ere, antzerki proiektu batetik abiatzeak aspektu zenbaiten lantzeko aukera eskaintzen duela. Izan ere, hizkuntza lantzen laguntzen du, ikasleen hiztegia garatzen baitu, euskaraz mintzatzen trebatzen baitira, eta lotura egiten baitu idatzia eta ahozkoaren artean. Horrez gain, euskal kultura eta historia ezagutarazten laguntzen du. Azkenik, talde lanari esker, ikasleek pertsona eta herritar gisa garatzeko gaitasunak eskuratzen dituzte.

Horri esker, CM1-CM2 mailako ikasleei zuzendutako sekuentzia bat sortu eta plantan ezarri ahal izan dut. Sekuentzia horren emaitzek erakutsi dute antzerki baten muntatzeak motibatu dituela ikasle guztiak. Saio ezberdinetan, ainitz parte hartu dute, batez ere, normalean gutxi entzuten direnak, eta denek seriooki lan egin dute antzerkien prestatzeko. Denek, ongi egiteko borondatea zuten eta, batzuk estresatua baziren ere, emanaldiak egitean plazer hartu dute. Bestalde, Piarres Larzabalen *Hiru ziren* testua hautatuz, ikasleek iparraldeko antzerkigile ospetsu baten ezagutzeko aukera izan dute eta, emigrazio fenomeno aipatzen hasi gara.

Alabaina, denboraren aldetik mugatua nintzenez, sekuentzia laburra izan behar zen. Beraz, nozio batzuk gainerik bakarrik landuak izanak dira, adibidez, emigrazio fenomenoak. Hori dela eta, pentsatzen dut antzerkiaren inguruko lan bat, urte oso bateko proiektu bat izaten ahal dela. Ikusi dugun bezala, aspektu zenbait lantzen dira horren bidez, ahozkoa, ulermena, ardatz kulturala zein historikoa, etab. Beraz, loturak egiten ahal dira beste ikasgaiekin. Era berean, antzezlanaren sakontzeko, urtean zehar, emanaldi batzuen ikustera eramaten ahal dira ikasleak, edo, antzezle bat etorrarazten ahal da klaserat.

Urrunago joateko, urte osoko proiektu batekin, interesgarria iduritzen zait hirugarren zikloko ikasleei antzerkiaren idaztea proposatzea. Izan ere, Sandrine Bazilek, 2017an idatzi duen artikuluan, erakusten du halako proiektu bat, zaila izan arren, egiten ahal dela.

Bibliografia / Bibliographie

Agiri ofizialak :

- Hezkunde Nazionala (B.O. 31. zenbakia, 2020eko uztailaren 30a) *Programmes du cycle 1,2 et 3*.
- Hezkunde Nazionala (B.O. 17. zenbakia, 2015eko apirilaren 23a) *Socle commun de connaissances, de compétences et de culture*.

Artikuluak :

- Bazile, S (2017). *Lire et écrire du théâtre en cycle 3 : entre pratiques extra-ordinaires et pratiques ordinaires de classe*. In Chabanne, J.-C. (éd.), Actes des XVIIes Rencontres de didactique de la littérature, juin 2016, Institut français de l'éducation-ENS de Lyon.
Interneten ikusia : <https://rdidlit17.hypotheses.org/bazile>
- Idiart, R. (1985ko iraila-abendua). *Piarres Larzabal. Herritar baten arabera*. Egan, 5/6 zenbakia. Interneten ikusia : <http://andima.armiarma.eus/egan/egan69/iruegan690009.htm>
- Landart, D. (2015). *Piarres Larzabal : biografia (1915-1988)*. *Euskera aldizkaria*, 2015(2), 73-89. Interneten ikusia : <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80470.pdf>

Elkarrizketak :

- Euskal Kultur Erakundea. (2019), Arantxa Hirigoyenen elkarrizketa. Interneten ikusia: https://www.eke.eus/eu/kultura/lekukoak_lekuko/arantxa-hirigoyen
- Kanaldude. (2015), Kanaldude zuzenean. [Bideoa] Euskal emigrazioa, oroitzapen baino gehiago. Interneten ikusia : <https://kanaldude.eus/bideoak/836-kanaldude-zuzenean-euskal-emigrazioa-oroitzapena-baino-gehiago>

Memorioak/tesiak :

- Echeverria, I. (2016) *Piarres Larzabalen antzerkigintza : 1950-1982. Euskarazko antzerki identitarioaren paradigmak*. Tesia, Euskaltzaindia.
- Urrutia San Juan, N. (2017, maiatza) *Antzerkia : Piarres Larzabalen « Angles gineralik » (1973) obra*. Memoire, Université de Pau et des Pays de l'Adour et ESPE Aquitaine.

Testua :

- Larzabal, P. (1957) « *Hiru ziren* ». *Piarres Larzabalen idazlanak* (II). (Piarres Xarrittonen edizioa). Elkar, 1991. <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/L/LarzabalHiruZiren.htm>

Webguneak :

- Etxepare Euskal Institutua. (n.d.). *Antzerkia*. 2021eko maiatzaren 4an ikusia. Webgunea : <https://www.etxepare.eus/eu/euskal-antzerkia>

-
- Euskal Kultur Erakundea. (n.d.). *Euskal antzerkigintza*. 2021eko apirilaren 30an ikusia. Webgunea : <https://www.eke.eus/eu/kultura/antzerkigintza>
 - Euskal Kultur Erakundea. (n.d.). *Piarres Larzabal*. 2021eko apirilaren 30an ikusia. Webgunea : https://www.eke.eus/eu/kultura/antzerkigintza/antzerkia/komediaz-komedia-1945-1970/piarres-larzabal-idazle-emankorrena/piarres_larzabal
 - Euskal Kultur Erakundea. (2008, Urtarrilaren 31a). *Piarres Xarriton Larzabalez mintzo*. 2021eko maiatzaren 4an ikusia. Webgunea : https://www.eke.eus/eu/kultura/antzerkigintza/antzerkia/komediaz-komedia-1945-1970/piarres-larzabal-idazle-emankorrena/piarres_larzabal/piarrez-larzabal/piarres-xarriton-larzabalez-mintzo
 - Larousse. (n.d.). *Théâtre*. Dictionnaire en ligne. 2021eko maiatzaren 3an ikusia. Webgunea : <https://www.larousse.fr/dictionnaires/francais/théâtre/77678>
 - Le Robert. (n.d.) *Théâtre*. Le Robert en ligne. 2021eko maiatzaren 3an ikusia. Webgunea : <https://dictionnaire.lerobert.com/definition/theatre>
 - Wikipedia. (2021, martxoaren 9a). *Euskal antzerkigintza*. 2021eko maiatzaren 3an ikusia. Webgunea : https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskal_antzerkigintza
 - Wikipedia. (2020, uztailaren 31a). *Piarres Larzabal*. 2021eko apirilaren 30an ikusia. Webgunea : https://fr.wikipedia.org/wiki/Piarres_Larzabal

1. Eranskina : Sekuentziaren jarraipena

Klasea : CM1 - CM2	<i>Antzerkia</i>		Iraupen orokorra : 3 oren 45 minutu
Sekuentziaren helburua/proiektua : Antzerki zati bat jokatu.			
<p>Socle commun : • Domaine 1 « Les langages pour penser et communiquer » → Comprendre s'exprimer en utilisant une langue régionale. Comprendre, s'exprimer en utilisant les langages des arts et du corps.</p> <p>• Domaine 2 « Les méthodes et outils pour apprendre » → Organisation du travail personnel. Coopération et réalisation de projets.</p> <p>• Domaine 3 « La formation de la personne et du citoyen » → Responsabilité, sens de l'engagement et de l'initiative.</p> <p>• Domaine 5 « Les représentations du monde et l'activité humaine » → L'espace et le temps. Organisations et représentations du monde.</p>			
<p>Kompetenzia orokorrak : Lire avec fluidité. Comprendre des textes, des documents et des images et les interpréter. Participer à des échanges dans des situations diverses. Parler en prenant en compte son auditoire. Utiliser les techniques de mise en voix des textes littéraires.</p>			
<p>Kompetenzia linguistikoak :</p>			
<ul style="list-style-type: none"> • Ahozko ulermena : Être capable de comprendre une histoire entendue. • Idatziko ulermena : Être capable de comprendre des textes courts et simples. Être capable de lire et comprendre un texte lu : identification spatio-temporelle, identification des principales actions, péripéties. Être capable de saisir les inférences d'un texte. • Ahozko ekoizpena : Être capable de parler avec clarté et fluidité afin d'être compris des autres. Être capable de s'exprimer de manière simple sur des sujets variés (récitation, lecture expressive). 			
1. saioa : Testua deskubritu	Helburua : Testuaren gaia eta idazlea ezagutu.		
2. saioa : Testuan sartu	Helburua : Testuen ulermen orokorra landu.		
3. saioa : Rolak landu	Helburua : Testua eta rolen jokoa landu.		
4. saioa : Entrenamendua	Helburua : Antzerkiaren prestaketa segitu eta zehaztu.		
5. saioa : Erakusketa	Helburua : Antzerkia jokatu beste ikasleekin aitzinean.		
Ebaluazioa :			
• Saio guztietan : ikasleekin inplikazioa begiratu.			
• 4. saioan : galdeketa fitxa banatu testuari buruz. Horren bidez, ikusi zer ulertu eta atxiki duten testuari buruz, idazleari buruz, erabilia den euskarari buruz, etab.			
• 5. saioan : « behaketa fitxa » bete erakusketak egiten dituzten bitartean.			
• 5. saioaren bukaeran : galdeketa fitxa bat eman ikasleei (zer pentsatu duten, nola sentitu duten beren burua, zer ikasi duten, zer erakarri dieten antzerkiak, etab.)			

1. saioa : Testua deskubritu	Iraupena : 45 minutu
<p>Helburua : Testuaren gaia eta idazlea ezagutu.</p>	
<p>Kompetenziak : Lire avec fluidité. Comprendre des textes, des documents et des images et les interpréter. Participer à des échanges dans des situations diverses.</p> <p>Kompetenzia linguistikoak : Être capable d'interagir de façon simple avec un débit adapté et des reformulations. Être capable de comprendre des textes courts et simples.</p>	
<p style="text-align: center;">Jarraipena</p>	<p style="text-align: center;">Oharrak</p>
<ul style="list-style-type: none"> • 1. fasea : Lanaren planoa presentatu <ul style="list-style-type: none"> - Irakasleak egin behar duena : Lana presentatu eta helburu nagusia/proiektua erran. - Erratekoa : « <i>Gaur, elkarrekin lan bat hasiko dugu antzerkiari buruz. Helburua antzerki bat jokatzeko da. Horretarako, hautatu dut testu bat eta, testu horretan, zati batzuk hartu ditut. Gaur, testu orokorra eta idazlea aipatu eta gero, banatuko ditut rolak, eta, taldeka emanez, lehen irakurketa bat egingen duzue. Hurrengo saiorako, hasi beharko zirezte testua ikasten, antzerkia jokatu duzue delarik besteen aitzinean ez baituzue testurik izanen, gogoz ezagutu beharko duzue. »</i> • 2. fasea : Testua eta idazlea komentatu 30 minutu <ul style="list-style-type: none"> - Agindua : « <i>Orduan, hautatu dudan testua Hiru ziren deitzen da. Piarres Larzabal-ek idatzi du. Ezagutzen duzue ? Elkarrekin irakurriko dugu idazleari buruzko testua. » ; « <i>Erran bezala, Piarres Larzabalek antzerki asko idatzi ditu. Guk egingen duguna Hiru ziren, deitzen da. Irakurriko dugu azalpena. » ; « <i>Zer ulertzen duzue testuari buruz ? Zer pasatzen da ? Non pasatzen da ? Nor dira pertsonaia nagusiak ? Zer egiten dute ? etab. » ; « <i>Antzerki osoa, 5 gertalditan zatitua da, gertaldi bakoitza leku batean pasatzen da. Beraz, gertaldiz aldatzen delarik, lekuz aldatzen da. »</i></i></i></i> - Irakasleak egin behar duena : Orrialdeak banatu azalpenekin ; testuak irakurrarazi idazlea eta gaia aipatzeko. Galderak pausatu ikasleei antzerkiaren gaia ongi ulertua izateko. Erakutsi testu osoaren antolaketa (gertaldiak, lekuak) ; aipatu pertsonaiak eta haien loturak. Komentatu eta esplikatu toka-noka forma. - Ikasleek egin behar dutena : Testuak irakurri eta ulertu, galderei erantzun. • 3. fasea : Lehen irakurketa bakarka 10 minutu <ul style="list-style-type: none"> - Agindua : « <i>Zuen orrialdean agertzen da antzerkiaren zati bat. Zati bakoitzak errepresentatzen du talde bat eta taldeka zati hori jokatu beharko duzue. Horretarako, lehenik erranen ditut taldeak eta gero rolak banatuko ditut. Testuan ongi agertarazteko zer erran behar duzuen, margotuko duzue zuen pertsonaiaren izena kolorezko margo batekin. Gero, bakarka testu osoa irakurriko duzue aldi batez eta bukatzeko zuen testua bakarrik irakurriko duzue trebatzeko. »</i> - Irakasleak egin behar duena : Taldeak arbelean agertarazi eta bakoitzaren rola banatu. Arbelean margotze adibide bat egin. Gero, taldeen artean pasatu, irakurketak entzuteko. - Ikasleek egin behar dutena : Begiratu behar dute norekin izanen diren, margotu behar dute beren pertsonaiaren izena. Irakurri behar dute testua osorik eta gero entrenatu behar dira beren testua irakurtzen. - Desberdintzea : Rolaren banaketan, kontuan hartu ikasleen gaitasunak eta zailtasunak, bakoitzak testu egoki bat izan dezan. 	<p>Ikasleen dokumentua : Ikus 2.eranskina.</p> <p>Materiaia : Testu osoa ; pertsonaien zerrenda eta loturak (ikus 3.eranskina) ; prestatu azalpen tiki bat toka-noka esplikatzeko.</p> <p>Taldeen eta rolen zerrendak prestatu, arbelean agertarazi.</p> <p>Berriz aipatu testu motaren ezaugarriak : didaskaliak itailkoz, pertsonaiak bazterrean, horiek ez direla erratan, etab.</p> <p>Azken saioari begira, galdetu ikasleei beren testua eta transizioak ikasten hastea.</p>

2. saioa : Testuan sartu	Iraupena : 45 minutu
<p>Helburua : Testuen ulermen orokorra landu.</p>	
<p>Kompetenziak : Être capable de s'engager dans une démarche progressive pour accéder au sens. Être capable de mobiliser des connaissances grammaticales et lexicales. Être capable de mettre en relation différentes informations.</p> <p>Kompetenzia linguistikoak : Être capable de lire et comprendre un texte lu. Être capable de saisir les inférences d'un texte.</p>	
Jarraipena	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> • 1. fasea : Oroitzapenak 5 minutu <ul style="list-style-type: none"> - Agindua : « Zer hasi gara egiten joan den aldian ? Zer da antzerkiaren titulua ? Zer da gai nagusia ? Zer gertatzen da ? Non pasatzen da ? Nork idatzi zuen ? » - Irakasleak egin behar duena : Galderak egin ikasleek ez badute fitsik erraten, titulua eta idazlearen izena idatzi arbelean. - Ikasleek egin behar dutena : Pentsatu behar dute, eta erran behar dute zer egin dugun azken saioan. - Lorpen irizpideak : Erraten dute antzerki bat lantzen hasi garela, testuaren titulua <i>Hiru ziren dela</i> eta idazlea <i>Piarres Larzabal</i> deitzen dela. • 2. fasea : Taldeka ulermen galderei erantzun 10 minutu <ul style="list-style-type: none"> - Agindua : « Orain, taldeka emanen zirezte. Talde bakoitzari galdeketa fitxa bat banatuko diot. Galdera horiek, zatiaren ulermen orokorrari buruz dira. Elkarrekin galderei erantzun beharko diezue. Hiztegiaren aldetik zailtasunak baldin badituzue, eskua altxatzen duzue. » - Irakasleak egin behar duena : Taldeak eman ahoz eta arbelean. Ulermen fitxak banatu eta taldeen artean pasatu, erantzunak begiratzeko eta zuzentzeko. Hiztegiaren aldetik zailtasunak baldin badituzte lagundu. - Ikasleek egin behar dutena : Testua eta galderak irakurri behar dituzte. Elkarrekin mintzatu behar dira galderei erantzuteko. Laguntza behar badute eskua altxatzen dute. • 3. fasea : Toka-noka landu 10 minutu <ul style="list-style-type: none"> - Agindua : « Zerbait berezia ikusten duzue aditz laguntzaile batzuekin ? Ba ote dira ezagutzen ez dituzuen formak ? <i>Esaldi horretan nori mintzatzen naiz ?</i> » ; « <i>Lehen erabiltzen zen hika pertsona hurbil batzuekin eta ber adinekoekin ; haurrek, beren burasoei mintzatzeko, zuka erabili behar zuten. Orain, zuka erabiltzen da gehienik.</i> » - Irakasleak egin behar duena : Toka-noka formak agertarazi eta galderak egin formen erabilerari buruz. Ez badute ezagutzen, esplikatu. Aipatu hikaren eta zukaren erabilera. - Ikasleek egin behar dutena : Atzeman behar dituzte toka-noka erabiltzen dituzten esaldiak. Ahal badute, galderei erantzun behar diete. Galderarik baldin badute edo zerbait ez badute ulertzen galdetu behar dute bukaeran argi izateko. • 4. fasea : Esaldiak transformatu 20 minutu 	<p>Antzerkietan agertzen diren pertsonaiak aipatu.</p> <p>Ulermen fitxak : Ikus 4.eranskina.</p> <p>Adibidea : <i>Serioski lanean ari haiz.</i></p> <p>Toka-noka ikasgaia : Ikus 5.eranskina.</p>

- **Agindua** : « Beraz, aipatu dugun bezala, antzerki horretan toka-noka erabilia da, eta hitz batzuk zailak dira. Beraz, testua ulergarriagoa izateko, zuen esaldiak transformatu beharko dituzue ezagutzen duzuen euskaran. Horretarako, aldaketak egin beharko dituzue gramatikaren aldetik eta lexikoaren aldetik. » ; « Adibidez, esaldi hori hartzen badugu, nola aldatuko zenukete ? »
- **Irakasleak egin behar duena** : Adibide bat egin arbelean ikasleekin erakusteko zein motatako aldaketak egiten ahal dituzten. Ikasleen artean pasatu eta lagundu, behar badute.
- **Ikasleek egin behar dutena** : Beren esaldiak hartu behar dituzte eta transformatu behar dituzte ezgutzen dituzten aditzak eta hitzak erabiliz.

Adibidea : Serioski lanean ari izan haiz... Ongi irabazi duk. Jakin izan duk guardiatzen ! Hi bezalakoentzat, Amerikak Amerika dituk ! Eta nola ikusten duk hire biziaren segida ?

4. gertaldia - II - Kanpero

3. saioa : Rolak landu	Iraupena : 45 minutu
<p>Helburua : Testua eta rolen jokoak landu.</p>	
<p>Kompetenziak : Lire avec fluidité. Participer à des échanges dans des situations diverses. Parler en prenant en compte son auditoire. Kompetenzia linguistikoak : Être capable de s'exprimer de manière simple sur des sujets variés (lecture expressive)</p>	
Jarraipena	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> • 1. fasea : Oroitzapenak 5 minutu <ul style="list-style-type: none"> - Agindua : « Zer hasi gara egiten joan den aldian ? Zer da antzerkiaren titulua ? Nork idatzi zuen ? Nor dira pertsonaia nagusiak ? Zer gertatzen da ? Non pasatzen da lehen gertaldia ? Hiru pertsonaia izultzen ote dira ? Zertarako joaten dira ? » - Irakasleak egin behar duena : Galderak egin ikasleek ez badute fisik erraten, titulua eta idazlearen izena idatzi arbelean. - Ikasleek egin behar dutena : Pentsatu behar dute, eta erran behar dute zer egin dugun azken saioan. - Lorpen irizpideak : Erraten dute antzerki bat lantzen hasi garela, testuaren titulua <i>Hiru ziren dela</i> eta idazlea Piarres Larzabal deitzen dela. • 2. fasea : Irakurketa osoa taldeka 5 minutu <ul style="list-style-type: none"> - Agindua : « Orain, taldeka emanen zirezte eta testu osoa irakurri beharko duzue. Ahal baduzue hasi egokia den <i>doinua erabiltzen</i>. » - Irakasleak egin behar duena : Taldeen artean pasatu, irakurketak eta ikasleen doinuak entzun - Ikasleek egin behar dutena : Taldeka eman behar dira eta irakurri behar dute testua. Ahal badute, testuaren kontestuari kasu eginez, beren doinua egokitu behar dute. - Lorpen irizpideak : Beren partea irakurtzen dute. Doinua egokitzen dute. • 3. fasea : Antzezlanaren komentatu (talde osoz) 10 minutu <ul style="list-style-type: none"> - Agindua : « Antzerki bat egitean, antzezleek (aktoreak) zer egiten dute ? Nola jokatzen dute pertsonaia bat ? » ; « Zuek nola egin behar duzue zuen pertsonaia jokatzeke ? Zer egin ahal duzue ? Zer begiratu behar duzue » - Irakasleak egin behar duena : Eraman ikasleak erratera pertsonaia bat jokatzeke emozioak, jestuak egin behar direla, doinua egokitu behar dela, etab. Bigarren partean, ikasleen proposamenak idatzi arbelean. - Ikasleek egin behar dutena : Erantzun galderei, pentsatu jadanik landu dutenari irakaslearekin (jestu jokoak, pertsonaia jokoak, etab.). Beren testuak ikusiz, proposamenak egin antzerkia egiteko eta rolak jokatzeke. • 4. fasea : Beroketa jokoak 5 minutu 	

- Agindua : « Antzerki jokoan sartzeko, joko tipiak eginen ditugu »
- Irakasleak egin behar duena : Joko ezberdinetan egitekoa oroitarazi eta hasi.
- Ikasleek egin behar dutena : Proposatuak diren joko ezberdinak egin behar dituzte, jestuak, mugimenduak, ahozkerak, etab. errespetatuz.
- Jokoak :
 - Hop hop jokoa : « hop » erran lagun bat begiratu eta eskuekin « objektu » bat botatzeko jestua egin, « hop hop hop » erranez zentzua aldatzen da. Azken itzulian berdin egiten dugu baina edozein zentzutuan.
 - Izenaren jokoa : gure izena erran eta jestu bat egin urrats batez aitzinatuz, gero besteek errepikatzen dute.
- 5. fasea : Taldeka rolen jokoa hasi 20 minutu
 - Agindua : « Orain, taldeka emanen zirezte. Elkarrekin, testua eta egoera begiratu, aipatu behar duzue nola antzeztzen ahal dituzuen zuen pertsonaiak, zein jestu, zein emozio, zein mugimendu egin behar duzuen. Taldeko kideen iritzi guztiak kontuan hartuz, aurkitu behar duzue zuen pertsonaia jokatzeko modu hoberena. Bakoitzak idazten ahal du paper batean, bere pertsonaiari buruz komentatua dena, beste saioetan erabiltzeko.» ; « Nahi baduzue beste leku batera joan ahal zirezte, adibidez aterpera, liburutegira edo kirol gelara ; eta nahi duzuen materiala har dezakezue. »
 - Irakasleak egin behar duena : Taldeen artean pasatu, iritziak entzun, galderak edo komentarioak egin laguntzeko eta gidatzeko.
 - Ikasleek egin behar dutena : Pertsonaia guztiandako, testua eta egoera kontuan hartu, egokiak diren jestuak eta emozioak agertarazteko, gero antzezteko. Guzien artean komentatu, bakoitzak ikuspuntu desberdin bat izan ahal baitu, eta horiek elkartzen ahal dira.
 - Lorpen irizpideak : Atzematen dituzte beren pertsonaiak jokatzeko irizpideak. Denen artean ideiak trukutzen dituzte. Idazten dituzte paper batean.

4. saioa : Entrenamendua	Iraupena : 45 minutu
<p>Helburua : Antzerkiaren prestaketa segitu eta zehaztu.</p> <p>Kompetenziak : Parler en prenant en compte son auditoire. Participer à des échanges dans des situations diverses. Utiliser les techniques de mise en voix des textes littéraires.</p> <p>Kompetenzia linguistikoak : Être capable de s'exprimer de manière simple sur des sujets variés (récitation, lecture expressive).</p>	
Jarraipena	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> • 1. fasea : Oroitzapenak <ul style="list-style-type: none"> - Agindua : « Zer ari gara lantzen elkarrekin ? Banatuko dizuet galdeketa fitxa bat egiten dugunari buruz. Galderei erantzun behar duzue baina ez duzue dokumenturik izaten ahal zuen ondoan. Galdera horiek dira ikusteko zertaz oroitzen zirezen. » ; « Zuzenduko dugu elkarrekin. Stylo berdearekin hartzen dituzue zuzenketak. » - Irakasleak egin behar duena : Galdeketa fitxa banatu ikasleei eta haien artean pasatu. Zuzenketarako, erantzunak arbelean idatzi. - Ikasleek egin behar dutena : Galderak irakurri behar dituzte eta erantzun behar dute. - Lorpen irizpideak : Galdera guztiei erantzun dute eta huts gutti dira : lortua ; Galdera guztiei erantzun dute eta hutsak dira : lortzeko bidean ; Galdera gehienei erantzun dute eta huts batzuk dira : lortzeko bidean ; Galdera guttiri erantzun dute edo galdera gehienei baina huts askorekin : berriz lantzekoa. • 2. fasea : Beroketa jokoak <ul style="list-style-type: none"> - Agindua : « Antzerki jokoan sartzeko, joko tipiak eginen ditugu » - Irakasleak egin behar duena : Joko ezberdinetan egiteko oroitarazi eta hasi. - Ikasleek egin behar dutena : Proposatutak diren jokoak egin behar dituzte jostuak, mugimenduak, ahozkerak errespetatuz. - Jokoak : <ul style="list-style-type: none"> • Lumaren jokia : ufatuz luma pasarazten dugu eta airean errekupeperatzen, modu ezberdinetan egiten ahal da : azkarki, emeki, zerurat, behererat, ... • Testua erran : espazio guzian ibili bere testua apalki erranez, norbait gurutzatzean testua erran lagunari eta hark ere bere testua erraten du. • 3. fasea : Taldeka antzerkia prestatu <ul style="list-style-type: none"> - Agindua : « Orain, taldeka emanen zirezte eta segitu behar duzue zuen antzerkia prestatzen. Beraz, testua landu behar duzue, emozioak, jostuak eta doinuak kontuan hartuz. Eszena jokatu behar duzue elkarriketarako eginez, bizia emanez zuen testuari eta zuen pertsonari. Nahi baduzue beste leku batera joan ahal zirezte, adibidez aterpera, liburutegira edo kirol gelara ; eta nahi duzuen materiala har dezakezue. » ; « Erabiliko duzuen materialaren zerrenda idatziko duzue paper batean eta bilduko dut. » - Irakasleak egin behar duena : Taldeen artean pasatu, egiten dutena begiratu, aholkuak eman, etab. 	<p>5 minutu</p> <p>Galdeketa fitxa : Ikus 6.eranskina.</p> <p>Klasearen bukaeran argazkitan hartu ikasleen galdeketa fitxak.</p> <p>5 minutu</p> <p>25 minutu</p>

<p>Materialaren zerrendak bildu.</p>	<p>- <u>Ikasleek egin behar dutena</u> : Taldeka eman behar dira eta beren antzerkia prestatu behar dute. Erabakiak hartu behar dituzte eszena jokatzeko : zein lekutan eman behar den bakoitza, zein doinu hartu, zein emozio transmititu, etab.</p> <p>- <u>Lorpen irizpideak</u> : Beren testua ezagutzen dute. Emozioak transmititzen dituzte eta doinu egokia hartzen dute. Beharrezkoa den materiala hartzen dute. Hitz egiten dute eta adosten dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 4. fasea : Oharrak hartu 10 minutu - <u>Agindua</u> : « <i>Lehen erakustaldi bat eginen duzue besteen aitzinean haien oharrak entzuteko eta zuen antzerkia hobetzeko. Begiratzen dutenek, oharrak edo laguntzak ematen ahal dituzte hobeki jokatzeke eszena.</i> » - <u>Irakasleak egin behar duena</u> : Taldeak pasara, begiratu eta oharrak eman. Begiratzen dutenei hitza eman oharrak egin ditzaten. - <u>Ikasleek egin behar dutena</u> : Beren antzerkia egin behar dute. Begiratzen dutenek ongi begiratu behar dute bukaeran oharrak egiteko jokalariei haien antzerkia hobetzeko, eta jokalariek entzun behar dituzte kontuan hartzeko. - <u>Lorpen irizpideak</u> : <ul style="list-style-type: none"> • Jokalariek : Beren testua ezagutzen dute. Emozioak transmititzen dituzte eta doinu egokia hartzen dute. Beharrezkoa den materiala hartzen dute. • Begiratzaleek : Beste taldeak begiratzen dituzte eta oharrak egiten dituzte.
	<p>Oroitarazi erakusketa egiteko ez dutela testurik izaten ahal, beraz bakoitzak bere testua eta transizioak ikastea.</p>

5. saioa : Erakusketa	Iraupena : 45 minutu
<p>Helburua : Antzerkia jokatu beste ikasleen aitzinean.</p> <p>Kompetenziak : Parler en prenant en compte son auditoire. Participer à des échanges dans des situations diverses. Utiliser les techniques de mise en voix des textes littéraires.</p> <p>Kompetenzia linguistikoak : Être capable de s'exprimer de manière simple sur des sujets variés (récitation, lecture expressive).</p>	
Jarraipena	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> • 1. fasea : Azken entrenamendua 10 minutu <ul style="list-style-type: none"> - Agindua : « <i>Utziko dizkizuet 10 minutu azken entrenamendu bat egiteko. Orduan, ematen ahal zirezte leku batean, joan den aldian bezala, eta azken aldi batez egiten duzue zuen antzerkia. Gero, besteen aitzinean egin beharko duzue erakusketa. Kasu, erakusketa egiteko ez duzue testurik izanen. Entrenamendua bukatu duzue delarik prestatu behar duzuen materiala, denbora irabazteko.</i> » - Irakasleak egin behar duena : Taldeen artean pasatu, azken aholkuak eman. Azken saioko oharrak eman taldeetan. 1. eta 2. taldeetan pasatu bereziki. - Ikasleek egin behar dutena : Taldeka eman eta azken aldi batez testua erraten entrenatu. • 2. fasea : Erakusketak 30 minutu <ul style="list-style-type: none"> - Agindua : « <i>Orain, taldeka pasatuko zirezte besteen aitzinean eta zuen testua antzeztu beharko duzue. Aldi batez egiten duzue, ez duzue testurik izaten ahal begien azpian, eta entrenamenduetan bezala, jestuak, mugimenduak eta ahotsa erabili behar dituzue. Segituko dugu egiazko testuaren ordena.</i> » ; « <i>Begiratzen dutenek, binaka ikasle bat ebaluatu beharko duzue behaketa fitxa bat betez.</i> » - Irakasleak egin behar duena : Begiratu taldeen erakusketak, « Behaketa fitxa » bete eta notak hartu. - Ikasleek egin behar dutena : Taldeka, behar duten material hartu behar dute eta Beren eszena antzeztu behar dute beste ikasleen aitzinean. Beren rolean sartu behar dira, eta kideekin ari behar dira. Begiratzen dutelarik, ikasle bat bereziki begiratu behar dute eta ebaluatu behaketa fitxa betez. - Lorpen irizpideak : <ul style="list-style-type: none"> • Jokalariak : Testua ezagutzen dute. Emozioak transmititzen dituzte. Jestuak eta mugimenduak erabiltzen dituzte. Besteekin ari dira. • Begiratzailerak : Behaketa fitxa betezen dute, ikasleak egiten duena begiratu. • 3. fasea : Bilana 5 minutu <ul style="list-style-type: none"> - Agindua : « <i>Gure lana bukatua denez, banatuko dizuet fitxa bat galdera batzuekin. Galdera horiek dira zuen iritzia ukaiteko elkarrekin egin dugun lanari buruz. Bukaeran fitxa horiek bilduko ditut.</i> » - Irakasleak egin behar duena : Fitxak banatu, galderak irakurri eta bukatua delarik bildu. Azken hitz gisa, ahoz egin bilan bat ikasleekin. - Ikasleek egin behar dutena : Beren iritzia eman behar dute galderei erantzunez. Bukaeran, ahoz nahi dutena erraten ahal dute (beti lanari buruz). 	<p>Klasea aitzin, prestatu ikasleek behar duten materiala, idatzitako zerrendak begiratu.</p> <p>Galdetu taldeak filmatzeko baimena.</p> <p>Behaketa fitxa : Ikus 8.eranskina.</p> <p>Ikasleen behaketa fitxa : Ikus 9.eranskina.</p> <p>Iritzi fitxa : Ikus 11.eranskina.</p>

2. Eranskina : Ikasleen dokumentua

Hiru ziren - Piarres Larzabal

Lehen taldea

Testua :

Donibane garazi inguruko hiru gaztek, Pantxo, Beñat eta Anton, Ameriketarat joatea erabaki dute. Bidaia hori egitea hautatu dute, han diru gehiago irabazten dela entzun baitute ; beraz, artzain gisa edo garaje batean lan egitera joaten dira 6 urterako.

Ameriketara direlarik, hiruek esperientzia ezberdina dute. Batek bere osabaren garajea lan egiten du eta han egotea hautatzen du. Bigarrenak, 6 urte horietan ongi lan egin ondoren eta diru zenbait ekonomizatu eta gero, etxerat itzultzen da. Azkenak, aldiz, zenbait arazoren ondorioz, ez du dirurik atxiki ; beraz, gaizki bukatzen du eta ezin da etxerat itzuli.

Piarres Larzabal



Piarres Larzabal idazle eta antzerkigile bat zen, 1915ean sortua Azkainen eta 1988an hila Ziburun. Eliza ikasketak Hazparnen, Uztaritzen eta Baionan egin eta gero, apaiz egin zen 1939an eta Hazparneko bikario izendatu zuten. Bigarren Mundu Gerla garaian Alemanian, Polonian eta Txekoslovakian preso egin izan zen. Hazparnera itzuli zen eta nazien aurkako erresistentzian parte hartu zuen. Garai hartan Eskualduna, Herria, Gure Herria, Enbata, Othoizlari, Aintzina aldizkarietan idazten hasi zen. 1951n Zokoako elizara igorri zuten. 1963an euskaltzain izendatu zuten.

Bere bizian, ehun antzerki baino gehiago eta beste hainbeste ipuin idatzi zituen. Hastapenean, bere antzerkiak gizartea irriarazteko eginak ziren. Baina, gero, antzerki gehienek gizartearen istorioak eta arazoak agerian ematen dituzte.

ELENA: Errazu, Terexa, ekartzu otoi hunarat orratz eta haria... Bonetako xingola¹ urratu zaio dantzari huni, eta behar ginioke josi.

TEREXA: Ekartzen segidan! (*Jalitzen da*)

MENTABERRI: (*Bi mutileri*) Non dituzue dantzak?

PIERRA: Pilota plazan, partida denboran.

MENTABERRI: Ontsa duk... Usaia xaharrak segitzen dituzue!

PIERRA: To... Horra Elena eta Karmen!... Horiek eginen die jostura. (*Elena eta Karmen agertzen dira*)

ELENA: Zer nahi duzue?

TEREXA: (*Agertuz*) Huna orratz eta haria!... Nahi duzuia nik jos dezadan?

PIERRA: Ez... Milesker!... Eginen dauku Elenak... Elena, otoi xingola hau josazu boneta huni!...

ELENA: Gizonak, beti emazteen beharretan! (*Mentaberriri*) Zer dituzu, Mentaberri jauna, bi mutil hauk Ameriketarat bildu gogo?

MENTABERRI: Zerendako ez?... Nahi badute joan...

KARMEN: Hola segituz, hemengo mutil guziak joanen dituzu, eta gu geldituko gira mutzurdin²!

MENTABERRI: Joaiten ditut, bainan frango ere gibelerat itzultzen... bonetetan joaiten eta, zuen plazerrarentzat, xapeletan gibelerat itzultzen... Eta zuek, mutikoak, ez zireztea deliberatzen?

PIERRA: Lehenik, soldadogoak egin ditzagun. Gero ikusiko!

MENTABERRI: Ni ere zuen adinean, hol'hola ninduan... Geroztik egin diat bide, eta ez diat urrikirik³!... Zozokeria duk gazte bat hemengo xuhurrerian⁴ bizitzea, Ameriketarat joanez, ahurra⁵ urrez bete dezakelarik.

PIERRA: Ez da errana, ez dugula guk ere holako zerbait alderdi hartu beharko! Gure etxetan, ez dute gure beharrik... Badira gu baino lehenagokoak!...

Piarres Larzabal

Hiru ziren, 1. gertaldia, III, 1957

Iturria : Klasikoen gordagailua

Hiztegia :

1. xingola : *ruban*
2. mutzurdin : *femme célibataire*
3. urriki : *peine*
4. xuhur : *manque*
5. ahurra : *paume de la main*

Hiru ziren - Piarres Larzabal

Bigarren taldea

Testua :

Donibane garazi inguruko hiru gaztek, Pantxo, Beñat eta Anton, Ameriketarat joatea erabaki dute. Bidaia hori egitea hautatu dute, han diru gehiago irabazten dela entzun baitute ; beraz, artzain gisa edo garaje batean lan egitera joaten dira 6 urterako.

Ameriketara direlarik, hiruek esperientzia ezberdina dute. Batek bere osabaren garajea eta lan egiten du eta han egotea hautatzen du. Bigarrenak, 6 urte horietan ongi lan egin ondoren eta diru zenbait ekonomizatuz gero, etxerat itzultzen da. Azkenak, aldiz, zenbait arazoren ondorioz, ez du dirurik atxiki ; beraz, gaizki bukatzen du eta ezin da etxerat itzuli.

Piarres Larzabal



Piarres Larzabal idazle eta antzerkigile bat zen, 1915ean sortua Azkainen eta 1988an hila Ziburun. Eliza ikasketak Hazparnen, Uztaritzen eta Baionan egin eta gero, apaiz egin zen 1939an eta Hazparneko bikario izendatu zuten. Bigarren Mundu Gerla garaian Alemanian, Polonian eta Txekoslovakian preso egin izan zen. Hazparnera itzuli zen eta nazien aurkako erresistentzian parte hartu zuen. Garai hartan Eskualduna, Herria, Gure Herria, Enbata, Othoizlari, Aintzina aldizkarietan idazten hasi zen. 1951n Zokoako elizara igorri zuten. 1963an euskaltzain izendatu zuten.

Bere bizian, ehun antzerki baino gehiago eta beste hainbeste ipuin idatzi zituen. Hastapenean, bere antzerkiak gizartea irriarazteko eginak ziren. Baina, gero, antzerki gehienek gizartearen istorioak eta arazoak agerian ematen dituzte.

KAROLINA: (*Andere, esku batean «Revue de la mode» agerkaria; preziatuki mintzo*) Zer da?... Zer duzue hola kalapitan?

MARGARITA: Ho, andere Karolina, ontsa jina zira... Zure semearekin ari nintzen!

PANTXO: Ama, ez zozula kasurik egin!

MARGARITA: Ba... zu eta ni, horrenganik amatxi behar baigira!

KAROLINA: Ho... gazte ixtorioetan ni ez naiz barna sartu nahi!

MARGARITA: Ha!... Ixtorio horietan ez sartu nahi!... Zure semeak hola ezarri balu jaun meraren alaba, sartu nahiko zinuken ba! Ala, ahantzia duzua ene alabari gertatzen zaiona, zuri gertatu zauntzula!... Eta, kontesko izan zinela orduan, zure «ixtoriotan», zure ama sartu baitzen!

KAROLINA: Ho... Ez dautzut errepustarik emaiten... Ez dut zikindu nahi!

MARGARITA: Ez zikindu nahi! Ez duzu zikintze beharrik! Aski zikindua zira hol'hola. Zuen ohoreaz¹, hura galdu ondoan, zirezte oroitzen... Ustel apainduak, zuek!...

KAROLINA: Otoi, bakea emazu zure ele² komun horiekin!

MARGARITA: (*Karolina imitatuz*) Bakea emazu... Bakea emazu... Ba, bakea emanen dautzut, andere Karolina... Sarri artio bederen... Tribunala ideki artio balia zaite zure ohoreaz, ordu artio, an-de-re Ka-ro-li-na... (*Urruntzen da*)

KAROLINA: Ho... Zer jende itsusia hori!... Eta, sinatu duzua, Pantxo?

PANTXO: Ba, ama, sinatu dut... Aita ere jin da!

KAROLINA: Aita jin?... Eta, badakia Ameriketarat funtski ari zirela?

PANTXO: Orai, denak badazki.

KAROLINA: Nola hartu du berria?

PANTXO: Hartu du!...

Piarres Larzabal

Hiru ziren, 1. gertaldia, V, 1957

Iturria : Klasikoen gordagailua

Hiztegia :

1. ohore : *honneur*

2. ele : *parole, discours*

Hiru ziren - Piarres Larzabal

Hirugarren taldea

Testua :

Donibane garazi inguruko hiru gaztek, Pantxo, Beñat eta Anton, Ameriketarat joatea erabaki dute. Bidaia hori egitea hautatu dute, han diru gehiago irabazten dela entzun baitute ; beraz, artzain gisa edo garaje batean lan egitera joaten dira 6 urterako.

Ameriketara direlarik, hiruek esperientzia ezberdina dute. Batek bere osabaren garajea lan egiten du eta han egotea hautatzen du. Bigarrenak, 6 urte horietan ongi lan egin ondoren eta diru zenbait ekonomizatuz gero, etxerat itzultzen da. Azkenak, aldiz, zenbait arazoren ondorioz, ez du dirurik atxiki ; beraz, gaizki bukatzen du eta ezin da etxerat itzuli.

Piarres Larzabal



Piarres Larzabal idazle eta antzerkigile bat zen, 1915ean sortua Azkainen eta 1988an hila Ziburun. Eliza ikasketak Hazparnen, Uztaritzen eta Baionan egin eta gero, apaiz egin zen 1939an eta Hazparneko bikario izendatu zuten. Bigarren Mundu Gerla garaian Alemanian, Polonian eta Txekoslovakian preso egin izan zen. Hazparnera itzuli zen eta nazien aurkako erresistentzian parte hartu zuen. Garai hartan Eskualduna, Herria, Gure Herria, Enbata, Othoizlari, Aintzina aldizkarietan idazten hasi zen. 1951n Zokoako elizara igorri zuten. 1963an euskaltzain izendatu zuten.

Bere bizian, ehun antzerki baino gehiago eta beste hainbeste ipuin idatzi zituen. Hastapenean, bere antzerkiak gizartea irriarazteko eginak ziren. Baina, gero, antzerki gehienek gizartearen istorioak eta arazoak agerian ematen dituzte.

BENAT: Te, huna Terexa! (*Keinu egiten dio*)

KARMEN: Ho, ez dakizu, Terexa? Benat, Ameriketarat joaiten zauku!

TEREXA: Ha, baia?... Ori, pena da... (*Mahaina xukatzen duela*)

KARMEN: Ho, ba pena da... Hoberen guziak urrun ari zauzkigu... (*Benateri hurbiltzen zaiola*) Zure adreza igortzen badautazu, hemengo berriak emanen daukitzut... Maite nuke hango norbaitekin letraz gurutzatzea.

BENAT: Ha, gaixoa!... Utz nezazu lehenik harat heltzerat!

KARMEN: Ez zira betikotz joaiten? Itzuliko zira?

BENAT: Hala dut esperantza.

KARMEN: (*Ergelki*) Hi, hi, hi... Bitxi izanen zaut, zu xapeletan ikustea... Hi, hi, hi... Sarri balean izanen zirea?

BENAT: Beharbada ba... Beharbada ez... Nola helduko naizen!

KARMEN: Hi, hi, hi... (*Terexari*) Badakit ba zuk zer pentsatzen duzun!

TEREXA: Zer pentsatzen ote dut?

KARMEN: Mahain hau okupatuz geroz, behar ginukela zerbait hartu... Hi, hi, hi...

TEREXA: Ez, ez... Ez naiz hortarik ari den gutienik ere.

ELENA: (*Agertuz*) Neska, nun haiz?... Mugi hadi!.... Pesta hasten dun!... Gure tokiak galduko ditinau!...

KARMEN: (*Xutituz*) Heldu nun... Heldu nun... (*Irri polit batekin*) Sarri artio, Benat!

BENAT: Ba, sarri artio!

Piarres Larzabal

Hiru ziren, 1. gertaldia, VII, 1957

Iturria : Klasikoen gordagailua

Hiru ziren - Piarres Larzabal

Laugarren taldea

Testua :

Donibane garazi inguruko hiru gaztek, Pantxo, Beñat eta Anton, Ameriketarat joatea erabaki dute. Bidaia hori egitea hautatu dute, han diru gehiago irabazten dela entzun baitute ; beraz, artzain gisa edo garaje batean lan egitera joaten dira 6 urterako.

Ameriketara direlarik, hiruek esperientzia ezberdina dute. Batek bere osabaren garajea lan egiten du eta han egotea hautatzen du. Bigarrenak, 6 urte horietan ongi lan egin ondoren eta diru zenbait ekonomizatuz gero, etxerat itzultzen da. Azkenak, aldiz, zenbait arazoren ondorioz, ez du dirurik atxiki ; beraz, gaizki bukatzen du eta ezin da etxerat itzuli.

Piarres Larzabal



Piarres Larzabal idazle eta antzerkigile bat zen, 1915ean sortua Azkainen eta 1988an hila Ziburun. Eliza ikasketak Hazparnen, Uztaritzen eta Baionan egin eta gero, apaiz egin zen 1939an eta Hazparneko bikario izendatu zuten. Bigarren Mundu Gerla garaian Alemanian, Polonian eta Txekoslovakian preso egin izan zen. Hazparnera itzuli zen eta nazien aurkako erresistentzian parte hartu zuen. Garai hartan Eskualduna, Herria, Gure Herria, Enbata, Othoizlari, Aintzina aldizkarietan idazten hasi zen. 1951n Zokoako elizara igorri zuten. 1963an euskaltzain izendatu zuten.

Bere bizian, ehun antzerki baino gehiago eta beste hainbeste ipuin idatzi zituen. Hastapenean, bere antzerkiak gizartea irriarazteko eginak ziren. Baina, gero, antzerki gehienek gizartearen istorioak eta arazoak agerian ematen dituzte.

BENITA: (*Sartuz, alegeraki*) Hor zarete?... Alo, Benat eta Pantxo, laster bezi zaitezte... Etxegarai baitan behar ditugu fandangoak eman, lehertu¹ artio!

BENAT: (*Ilun*) Ni ez niz, arrats huntan, hemendik mugitzen.

BENITA: Zer duzu?... Bihotzean min?... Alo... Behar dugu min hori tratatu... Hotelero, whisky bat deneri!... Non da Gabriela?

HOTELERO: Ba, agertuko da laster!... (*Benati*) To, orai hor duk kanperoaren alaba!... Galde zok aita noiz heldu den zuen bilarat!

BENITA: Aita!... Egun arratsaldean etorria da!

BENAT: Ez da goizegi!

GABRIELA: Ai, Benat, Benat... Zu lagun, Kalifornian kurrituz, fandangotan bizitzekoa irabaz ginezake... Ale, nere turnada, orai! Huts baso horiek! (*Edaterat emaiten diote*)

BENAT: (*Irriz*) Artzaingoan ez badut erreusitzen, jinen naiz menditik gibelerat, eta lotuko gira biak dantzako ofizioari.

BENITA: Pantxo eta ni, etorriko gira zuen lagun, ttuntun eta atabalarekin.

GABRIELA: Beztitzerat noa... Agozte ixtant bat nere beha! (*Gabriela jalitzen¹ da... Benita eta Benat ixtant bat ixilik dagotzi*)

BENAT: Zure aita noiz jinen da hunarat!

BENITA: Ixtantean, nik uste... (*Ixilik ixtant bat*) Errazu, mendirat joaitean, nere aita izango baituzu kanpero, harekin komixione zenbeit bialduko daukitzut.

BENAT: Zer komixione?

BENITA: (*Ezin atrebituz bezala*) Ez baituzu hemen nehor familiatik... Familiakoa banintz bezala... (*Ixtant bat ixilik daude. Letxero eta Rantxero sartzen dira, pixka bat edariak harrotuak*)

Piarres Larzabal

Hiru ziren, 2. gertaldia, II, 1957

Iturria : Klasikoen gordagailua

Hiztegia :

1. jalitu : *sortir*

3. Eranskina : Pertsonaien zerrenda

Hiru ziren - Tiarres Larzabal Pertsonaien zerrenda

Protagonistak :

- BENAT : Ameriketarat joaten den euskaldun gazte bat. Han, konpania batentzat artzain gisa lan egingen du.
- PANTXO : Ameriketarat joaten den bigarren gaztea da. Beñat bezala, artzain gisa lan egingen du konpania batentzat. Baina, bere herriko neska bat, Martzelina, haurdun uzten du.
- ANTON : Ameriketarat joaten den azken gizon gaztea da. Berak, bere oxabaren garajea lan egiteko joaten da.

Euskal Herriko pertsonaiak :

- MENTABERRI : Ameriketarat joan nahi duten gazteak biltzen eta laguntzen ditu ; paperez arduratzen da.
- TEREXA : Donibane Garaziko neska gazte bat. Ostatuan zerbitzaria da eta, sekretuki, Beñaten neska-laguna da.
- PIERRA : Donibane Garaziko mutiko gazte bat.
- NANI : Donibane Garaziko gazte bat.
- KARMEN : Donibane Garaziko neska gazte bat.
- ELENA : Donibane Garaziko neska gazte bat.
- BATTITTA : Pantxoren aita da.
- MARGARITA : Martzelinaren ama da.
- KAROLINA : Pantxoren ama da.
- LEON eta JOSEPH : Donibane Garaziko bi gazte dira ; ttikitan, Beñaten auzoak ziren.

Ameriketako pertsonaiak :

- HOTELERO : Euskaldun gazteak errezibitzen dituen hotelaren jabea da. Gabrielaren aita da.
- BENITA : Ameriketara bizi den neska gazte bat. Kanperoaren alaba da.
- GABRIELA : Ameriketara bizi den neska gazte bat. Hoteleroaren alaba da.
- LETXERO eta RANTXERO : Duela zenbait urte, protagonistak bezala, Ameriketara lan egiterat etorri ziren euskaldunak.
- BAKERO : Amerikano dirudun bat da eta Letxeroren etsaia.
- MORO : Zapatak ziratzten lan egiten duen gizon beltz bat.
- INDIANOA : Moro bezala, gizon beltza bat, ingelesez bakarrik hitz egiten du. Bi taula ekartzen ditu bere gainean (bat bizkarrean eta bat aitzinean), taula horien bidez publizitatea egiten du.
- KANPERO : Beñat eta Pantxoren jabea da eta Benitaren aita.

4. Eranskina : Ulermen fitxak

Hiru ziren - Tiarres Larzabal

Lehen taldea

Galderei erantzun :

1) Zer izanen da pilota plazan ?

.....

.....

.....

2) Zer da Mentaberriren gogoa/lana/xedea ?

.....

.....

.....

3) Zendako kexatzen da Karmen ?

.....

.....

.....

4) « Gure etxetan, ez dute gure beharrik... Badira gu baino lehenagokoak ! »

Esaldi horrekin zer ulertzen duzue ?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Hiru ziren - Tiarres Larzabal

Bigarren taldea

Galderei erantzun :

1) Zer gertatzen zaie Margaritari eta Karolinari ?

.....

.....

.....

2) Zer egiten du Pantxok antzerkian? Norat joaten da ?

.....

.....

.....

3) Beraz, zer gertatzen zaio Margaritaren alabari ?

.....

.....

.....

4) Zergatik Margarita haserre da ?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Hiru ziren - Tiarres Larzabal

Hirugarren taldea

Galderei erantzun :

1) Benat Ameriketarat joaten dela aipatzen dute. Nola sentitzen dira Karmen eta Terexa hori buruz ?

.....

.....

.....

2) Zer proposatzen dio Karmen Benati ?

.....

.....

3) Zer izanen da gauean ?

.....

.....

4) « TEREKA : Zer pentsatzen ote dut ? » . Pasarte horretan, zer erantzuten du Karmenek Terexaren ordezt ?

.....

.....

.....

5) Zergatik Elenak Karmen presatzen du ?

.....

.....

Hiru ziren - Tiarres Larzabal

Laugarren taldea

Galderei erantzun :

1) Zer pasatzen da Etxegaraien etxean ?

.....

.....

.....

2) Nor itxuiten du Benatek ?

.....

.....

.....

3) Zer da Benaten lehen lan xedea ?

.....

.....

.....

4) Ez badu erreusitzen zer ofiziori lotuko da ?

.....

.....

.....

5. Eranskina : Toka-noka ikasgaia

Toka-noka

Toka-noka aritzen girelarik, *hi* edo *hik* pertsonak erabiltzen ditugu.

Persona horren berezitasuna da letra bat aldatu behar dela neska bat edo mutiko bat baldin bada.

- **neska batentzat : -n**

Adibidez : ongi irabazi dun, Elena

- **mutiko batentzat : -k**

Adibidez : ongi irabazi duk, Ximun

6. Eranskina : Galdeketa fitxa

Galdeketa fitxa

Galderei erantzun :

1) Zein da lantzen dugun antzerkiaren titulua ?

.....

2) Nork idatzi du ?

.....

3) Nor dira pertsonaia nagusiak ?

.....

.....

4) Non pasatzen da lehen gertaldia ?

.....

.....

5) Norat joaten dira ?

.....

.....

6) Hiru pertsonaia nagusiak itzultzen ote dira etxerat ?

.....

.....

Inguratu erantzun ona :

6) Zertarako joaten dira pertsonai nagusiak ?

- a) Ezkontzeko.
- b) Bidaia bat egin nahi dutelako.
- c) Dirua irabazteko.

7) Zertan lan egiten dute ?

- a) Bik hotel batean eta batek garaje batean.
- b) Batek garaje batean eta beste biak artzain gisa.
- c) Bik garaje batean eta batek irakasle gisa.

8) Zeri buruz idatzi ditu antzerkiak idazleak ?

- a) Elizako istorioei buruz.
- b) Bere haurtzaroko istorioei buruz.
- c) Gizartearen istorioei eta arazoei buruz.

9) Nongoa da antzerkigilea ?

- a) Ipar Euskal-Herrikoa da.
- b) Hego Euskal-Herrikoa da.
- c) Italiarra da.

7. Eranskina : Galdeketa fitxaren emaitzak

	1. gald.	2. gald.	3. gald.	4. gald.	5. gald.	6. gald.	7. gald.	8. gald.	9. gald.	10. gald.	Guztira /10	Ehunekoa
1 ikaslea	0	0	1	0	1	0	1	1	1	1	6	60
2 ikaslea	0	1	1	1	1	0	1	1	0	1	7	70
3 ikaslea	0	1	1	0	1	0	1	0	0	0	4	40
4 ikaslea	0	0	0	0	0	0	1	1	0	0	2	20
5 ikaslea	0	1	1	1	1	1	1	1	1	1	9	90
6 ikaslea	1	1	1	1	1		1	1	1	1	9	90
7 ikaslea	0	1	1	0	1	1	1	0	1	0	6	60
8 ikaslea	1	1	1	0	1	1	1	1	0	1	8	80
9 ikaslea	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	10	100
10 ikaslea	0	1	1	0	1	0	1	1	0	1	6	60
11 ikaslea	0	1	1	0	1	1	1	1	0	0	6	60
12 ikaslea*	EZ	1	1	EZ	1	EZ	1	0	0	0	4	40
13 ikaslea	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	10	100
14 ikaslea	0	1	1	0	0	0	0	0	0	0	2	20
15 ikaslea	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	10	100
Guztira /15	5	13	14	6	13	7	14	11	7	9	6,6	
Ehuneko	33	87	93	40	87	47	93	73	47	60		

* **Différenciation** = Galdera batzuei ez erantzun behar (EZ)



Erantzunik gabe / Erantzun txarra



Erantzun xuxena



Ikasleen noten batezbestekoa

Erantzun guztiak	150		
Erantzun xuxenak	99	Erantzun xuxenen ehunekoa	66
Erantzun txarrak	48	Erantzun txarren ehunekoa	32

8. Eranskina : Behaketa taula

Behaketa taula : 1. taldia

Ikasleen izenak (Pertsonaia)	Bere testua ezagutzen du.	Emozioak erabiltzen ditu.	Objektuak eta espazioa erabiltzen ditu.	Besteekin jokatzen du.	Beste oharrak
1. Klase 1 (Eneasa)					
1. Klase 2 (Elena)					
1. Klase 3 (Harunen)					
1. Klase 4 (Tiera)					
1. Klase 5 (Mentaberi)					

9. Eranskina : Ikasleen behaketa taula

Behaketa taula

Ikaslearen izena :

Behatzaileen izenak :

Bere testua ezagutzen du.	Emozioak erabiltzen ditu.	Objektuak eta espazioa erabiltzen ditu.	Besteekin jokutzen du.	Beste oharrak

Behaketa taula

Ikaslearen izena :

Behatzaileen izenak :

Bere testua ezagutzen du.	Emozioak erabiltzen ditu.	Objektuak eta espazioa erabiltzen ditu.	Besteekin jokutzen du.	Beste oharrak

10. Eranskina : Behaketa taulen emaitzak

Ikasleak		Bere testua ezagutzen du.	Emozioak erabiltzen ditu.	Objektuak eta espazioa erabiltzen ditu.	Bestekin jokatzeko du.
1	1. taldea	★★★★★	★★★★ • •	★★★★★ •	★★★★★ •
2		★★★★ •	★★★★ • •	★★★★ • •	★★★★★ •
3		★★★★★	★★★★★ •	★★★★★	★★★★★
4		★★★★★	★★★★★ •	★★★★★	★★★★★
5		★★★★★	★★★★★	★★★★★	★★★★★
6	2. taldea	★★★★ •	★★★★★ •	★★★★★ •	★★★★★
7		★★★★ •	★★★★★	★★★★★ •	★★★★★ •
8		★★★★★	★★★★★ •	★★★★★ •	★★★★★
9	3. taldea	★★★★★	★★★★★	★★★★★	★★★★★
10		★★★★★	★★★★★	★★★★★	★★★★★
11		★★★★★	★★★★★ •	★★★★★	★★★★★
12		★★★★★	★★★★★	★★★★★	★★★★★
13	4. taldea	★★★★★	★★★★★	★★★★★	★★★★★
14		★★★★★	★★★★★	★★★★★	★★★★★
15		★★★★★	★★★★★	★★★★★	★★★★★
16		★★★★★	★★★★★ •	★★★★★	★★★★★

11. Eranskina : Iritzi fitxa

Hiru ziren - Tiarres Larzabal

Iritzi fitxa

Galderei erantzun zure iritzia emanaz :

1) Zer pentsatu duzu egin dugun lanaz ?

.....

.....

.....

.....

.....

2) Zer maitatu duzun gehien ?

.....

.....

.....

.....

3) Zer ez duzu maitatu ?

.....

.....

.....

.....

4) Zer ikasi duzu ?

.....

.....

.....

5) Nola sentitu zira antzerkia prestatzean ?

.....

.....

.....

.....

6) Nola sentitu zira antzerkia jokatzean ?

.....

.....

.....

.....

7) Zer erakarri zaitu egin dugun lanak ?

.....

.....

.....

.....